

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

LETREN
FAKULTATEA
FACULTAD
DE LETRAS

**GASTEIZKO GURASO EUSKAL HIZTUNEN
FAMILIAKO HIZKUNTZA POLITIKAK: IKERKETA
BATERAKO ABIAPUNTUA**

GRADU AMAIERAKO LANA

Euskal Ikasketetako Gradua

2021-2022 ikasturtea

Egilea: Anne Egaña Asensio

Zuzendaria: Ibon Manterola Garate

Saila: Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak

Gasteizen, 2022ko maiatzaren 20an

Laburpena

Familia bidezko hizkuntzaren transmisioa funtsezko esparrua da hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuetan. Euskararen kasuan ere halaxe izan da, eta oraindik ere halaxe da. Dena dela, euskararen kasuan, ikerketa soziolinguistikoei dagokienez, azken hamarkadetan indartu den auzia da familiako hizkuntzen transmisioarena. Hain zuzen ere, GrAL honetan euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenaren gaia landuko da, fokua familiaren esparruan jarrita. Bi helburu nagusi ditu GRALak: Lehenengo helburu nagusia ikerketarako atal teorikoaren lanketa egitea da, zeinak barne hartzen dituen Gasteizko testuinguru soziolinguistikoaren aurkezpena, biziberritze prozesuei buruzko oinarri sendo bat, Familiako Hizkuntza Politiken eta Hizkuntza Sozializazioaren azalpenak eta hizkuntza gutxituen transmisiorako eta sozializatorako Familiako Hizkuntza Politiken aurrekari batzuk. Horretarako, arreta berezia eskainiko zaie hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena ikertzeko bi ikuspegiari: Familiako Hizkuntza Politikak eta Hizkuntza Sozializazioa. Bigarren helburu nagusia, ordea, ikerketarako proposamen baten abiapuntua aurkeztea da, Gasteizko guraso euskal hiztunek euren seme-alabak euskaraz sozializatzeko dituzten Familiako Hizkuntza Politikak aztertuz, hizkuntza ideologia, praktika zein estrategietan arreta berezia jarritz.

Hitz-gakoak: Gasteiz, euskara, biziberritzea, Familiako Hizkuntza Politikak, Hizkuntza Sozializazioa.

Abstract

The transmission of the family language is a fundamental framework in the revitalisation processes of minority languages. In the case of Basque, this has also been and continues to be the case. However, in relation to Basque, the transmission of family languages is an issue that has been reinforced in recent decades in the field of sociolinguistic studies. Precisely, this Final Degree Project will address the issue of the generational transmission of Basque, focusing on the family environment. The project has two main objectives: The first main objective of the project is the elaboration of a theoretical research section that includes the introduction of the sociolinguistic context of Vitoria-Gasteiz, a solid basis on the Language Revitalisation processes, the explanations of Family Language Policies and Language Socialisation and some precedents of Family Language Policies for the transmission and socialisation of

minority languages. To this end, special attention will be paid to two research perspectives on the language gap and generational maintenance of languages: Family Language Policies and Socialisation. The second main objective, however, is to present the starting point of a research proposal, analysing the Family Language Policies of Basque-speaking parents in Vitoria-Gasteiz in order to socialise their children in Basque, focusing on linguistic ideologies, practices and strategies.

Keywords: Vitoria-Gasteiz, Basque, Language Revitalisation, Family Language Policy, Language Socialisation.

Aurkibidea

0. Sarrera.....	4
1. Testuingurua kokatzen: Gasteizko testuinguru soziolinguistikoa	5
1.1. Hizkuntza gaitasuna	5
1.2. Lehen hizkuntza	8
1.3. Hizkuntza erabilera	9
1.3.1. Etxeko hizkuntzaren erabilera	9
1.3.2. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016.	10
2. Hizkuntzen biziberritzea.....	12
2.1. Hizkuntza gutxituak eta arriskuan dauden hizkuntzak: arrisku mailak	13
2.2. Biziberritzearen helburuak	14
2.3. Motibazioak eta hiztun profilak	16
3. Hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena ikertzeko bi ikuspegi: Familiako Hizkuntza Politikak eta Sozializazioa	19
3.1. Familiaren garrantzia erdigunean.....	20
3.2. Familiako Hizkuntza Politika.....	21
3.3. Hizkuntza Sozializazioa	23
4. Hizkuntza gutxituen transmisiorako eta sozializatorako Familiako Hizkuntza Politika: aurrekari batzuk.....	26
4.1. Gurasoen ideologiak.....	27
4.2. Hizkuntza praktikak	28
4.3. Hizkuntza kudeaketa	29
4.4. Hurren agentzia	31
5. Ikerketa baterako abiapuntua.....	32
5.1. Ikerketa galderak eta aurreikuspenak.....	32
5.2. Ikerketarako metodologia.....	35
5.2.1. Testuingurua eta parte-hartzaileak	35
5.2.2. Datu-bilketarako tresnak.....	35
5.3. Kronograma.....	36
5.4. Ikerketa proposamenaren balizko ekarpenak	37

0. Sarrera

Euskararen biziberritze prozesuaren baitan garrantzi handia izan du familia bidezko transmisioaren alorrak. Alabaina, ikerketa soziolinguistikoari erreparatuz, azken hamarkadetan indartu den auzia dugu familiako hizkuntzen transmisioarena, hau da, familia ikerketa esparru gisa azken hamarkadetan sustatu da. Eta horrenbestez, Gradu Amaierako Lan honetan arreta berezia eskaini zaie hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena ikertzeko bi ikuspunturi: Familiako Hizkuntza Politikak eta Hizkuntza Sozializazioa. Horretarako, lana bi zati nagusitan banatu da. Lehenengo atalean, atal teorikoaren lanketa egin da literaturaren berrikusketaren laguntzaz, alderdi kontzeptuala osatzeko. Hortaz, horren barnean aurkitu ahalko da: Gasteizko testuinguru soziolinguistikoaren aurkezpena, biziberritze prozesuei buruzko oinarri bat, Familiako Hizkuntza Politiken eta Hizkuntza Sozializazioaren azalpenak eta hizkuntza gutxituen transmisiorako eta sozializaziorako Familiako Hizkuntza Politiken aurrekari batzuk. Bigarren atalari dagokionez, ordea, GrAL honen bigarren helburu nagusia euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipena aztertzea denez, fokua Gasteizen jarrita, eta are zehatzago, guraso euskal hiztunez osatutako familietan, xede hori aurrera eramateko, lanaren amaieran ikerketa baterako abiapuntua eskaini da. Gainera, hizkuntza ideologia, praktika zein estrategietan arreta berezia jarri da, Gasteizko guraso euskal hiztunen Familiako Hizkuntza Politiketara hurbilketa bat egiteko asmoz. Hala ere, aipaturiko ikerketa proposamen hori, aurrera begirako Master Amaierako Lan baterako abiapuntu gisa ulertu behar da.

Eta horrenbestez, jarraian, GrALa osatzen duten atalak aipatuko dira. Lehenik eta behin, Gasteizko testuinguru soziolinguistikoa aurkeztu eta kokatuko da, hizkuntza gaitasunari, lehen hizkuntzari eta hizkuntzaren erabilerari erreparatuz (§1). Horren ostean, hizkuntza gutxituen biziberritzea izango da hizpide (§2) eta horren baitan hizkuntza gutxitu eta arrisku mailatan (§2.1), biziberritzearen helburuetan (§2.2) eta motibazio zein hiztun profiletan (§2.3) sakonduko da. Ondoren, hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena ikertzeko bi ikuspegi jorratuko dira (§3). Horretarako, hizkuntza baten biziberritze prozesuaren baitan familiaren garrantzia jarriko da erdigunean (§3.1); gero, Familiako Hizkuntza Politikan (§3.2) eta Hizkuntza Sozializazioan (§3.3) murgiltzeko. Behin hori eginda, hizkuntza gutxituen transmisiorako eta sozializaziorako Familiako Hizkuntza Politiken aurrekari batzuk bilduko dira (§4) gurasoen hizkuntza ideologiak (§4.1), hizkuntza praktikak (§4.2) eta

estrategiak (§4.3) aintzat hartuz. Bukatzeko, ikerketa baterako abiapuntua eskainiko da (§5) eta hurrengo atalak izango ditu: ikerketa galderak eta aurreikuspenak (§5.1), ikerketarako metodologia (§5.2) eta kronograma bat (§5.3). Azkenik, ikerketa proposamenaren balizko ekarpenak bilduko dira. (§5.4).


1. Testuingurua kokatzen: Gasteizko testuinguru soziolinguistikoa

EAEn, 80ko hamarkadatik aurrera jazo den euskararen bilakaera nabarmena izan da. Hurrengo atalean ekarriko diren datu zein grafikoen bitartez, ikusiko dugu euskararen gaitasunaren gorakada ezin ukatuzkoa dela, euskaraz dakiteneen kopurua nabarmen hazi delako, bereziki, umeen eta gazteen artean (Goikoetxea, 2016: 17). Izan ere, hein handi batean behintzat, eskolaren eraginari zor zaio umeen eta gazteen artean gertatu den gorakada hori (Goikoetxea, 2016: 17). Nolanahi ere den, ezagutzak gora egin duen arren, erronkarik handiena erabilera izaten jarraitzen du. Beraz, euskararen bilakaera soziolinguistikoaren deskribapen oso bat emateko asmoz, hizkuntza gaitasun, lehen hizkuntza eta erabilerari, bai etxeko bai kaleko testuinguruan, erreparatuko diegu. Hala eta guztiz ere, GrAL honen abiapuntu eta jomuga Gasteizko testuingurua izango denez, maiz EAEko eta Arabako datuak ere berrikusiko diren arren, horiek Gasteizko testuingurua kokatzen eta kontrasteak ezartzen lagunduko digute, hau da, lagungarri gisa agertuko dira.

1.1. Hizkuntza gaitasuna


Lehenik eta behin, hizkuntza gaitasunaren berri emateko, VI. inkesta soziolinguistikoaren (2016) eta VI. mapa soziolinguistikoaren (2020) datuak baliatuko dira. VI. inkesta soziolinguistikoaren arabera, hau da, 16 urtetik gorako biztanleak aintzat harturik, euskara gaitasuna EAEn % 33,9koa da, 1. grafikoan ikus daitekeen bezala. Halaber, VI. mapa soziolinguistikoari erreparatzen badiogu, zeinak bost urtetik gorako biztanleak kontuan hartzen dituen, gaitasunak % 41era egiten du gora, 1. grafikoan ikus daitekeen legez:

1. Grafikoa:




Horrenbestez, jada aipatu den umeen eta gazteen presentziak euskara dakitenen kopuruan eragiten duela agerian geratu da, hau da, gaitasunari dagokionez, zenbat eta adinean beherago hainbat eta errazagoa izango da euskaraz hitz egiteko gaitasuna duten hiztunekin topo egitea. Hala ere, hemendik aurrera VI. mapa soziolinguistikoko (2020) datuak baliatuko dira, GrAL honen helburuak aintzat hartuta, hurbilketa osoago bat eskainiko digulakoan. Esan nahi da, GrAL honen baitan guraso euskal hiztunei bai, baina era berean, euren seme-alabei ere erreparatu nahi zaienez gero, mapa soziolinguistikoa 5 urtetik gorako biztanleak kontuan hartzen ditu, inkesta soziolinguistikoa ez bezala, eta datu horiek baliagarriak izango zaizkigu. Horrekin batera, EAEko datuak eskainiko diren arren, Araba eta are zehazkiago, Gasteizko testuingurua izango da lan honen jo puntu nagusia. Beraz, 2. grafikoan agerian geratzen den bezala, EAEko testuinguruan Arabak du euskaldunen ehunekorik txikiena, hots, % 27,4.

2. Grafikoa:



Areago, hiriburuek euren parte diren lurraldeek baino euskaldun ehuneko txikiagoa izan ohi dute, baina Gasteizen nahiko parekatuta dago. Hain zuzen ere, 3. grafikoari erreparatuz, Gasteizek lurraldearen antzeko egoera du. Alegia, Gasteizen % 26,2 dira euskaldunak, Arabako euskaldunen ehunekoaren oso antzekoa, 2. grafikoan ikus daitekeen bezala.


3. Grafikoa:



Horrekin batera, mapa soziolinguistikoan lau gune soziolinguistiko banatzen dira biztanleriaren euskaldunen ehunekoaren arabera. Jo muga izango dugun Gasteiz kontuan hartuta, bigarren gunean kokatzen da, hau da, biztanleriaren % 20-50 bitartean da euskalduna. Izan ere, aipaturiko gune horren parte dira, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 80 udalerrri, hiru hiriburuak eta 50.000 biztanletik gorako hiri guztiak. Hori horrela izanik ere, Goikoetxearekin (2016: 17) bat eginez, nabarmendu nahi da euskarak Araban bizi izan duen bilakaera. Izan ere, 1981ean Arabako biztanleen % 4 zen euskalduna eta Arabako herri guztiak gune soziolinguistiko erdaldunean zeuden.

Horrez gain, gaitasunarekin jarraituz, adinari heltzen badiogu, 1986-2016 bitartean, aldaketa handia gertatu da EAEn. Hain zuzen ere, 4. grafikora jotzen badugu, 1986an, euskaldunen ehunekorik altuena zutenak 65 urtetik gorakoak izatetik, azken mapa soziolinguistikoaren (2020) arabera, euskaldunen ehunekorik handiena gazteen artean egotera igaro da.

4. Grafikoa:



Gainera, ehunekoak lurraldeen arabera nahiko desberdinak diren arren, joerak oso parekoak dira. Gure kasuan, Araban, 25 urte baino gazteagoak direnen artean, erdia baino gehiago dira euskaldunak 2016an. Aldiz, adinean gora egin ahala portzentaiak behera egingo du. Aipaturiko adin-tarte horietan dauden ehuneko zehatzak ikusiko ditugu 5. grafikoa:

5. Grafikoa:

	EAE	Araba
≥ 85	25,9	5,1
80-84	24,3	5,2
75-79	22,2	4,5
70-74	22,2	4,9
65-69	23,1	5,4
60-64	23,6	7,3
55-59	26,5	11,8
50-54	29,0	15,4
45-49	30,1	16,1
40-44	34,7	20,4
35-39	40,1	26,7
30-34	46,4	32,3
25-29	55,4	41,9
20-24	69,2	57,0
15-19	82,7	74,5
10-14	87,3	81,0
05-09	84,4	72,8
GUZTIRA	41,1	27,4


Iturria: EUSTAT. Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Estadistika.

1.2. Lehen hizkuntza

EAEn biztanleriaren gehiengoak gaztelania soilik jaso du etxean, hots, % 71,7k. Hala ere, kasu honetan bai, alde nabarmenak egongo dira lurralde historikoen artean.


Izan ere, VI. mapa soziolinguistikoan oinarrituz, Arabaren kasuan, gaztelaniaren nagusitasuna beste lurraldeetan baino handiagoa izango da; 6. grafikoan ikus daitekeenez % 86,4k gaztelania soilik jaso baitu etxean. Horrez gain, xehetasun gehiago eskaintze aldera, Araban euskara zein erdara jaso dutenak % 3,8 dira eta euskara bakarrik jaso dutenak % 4,1. Horrekin batera, Gasteizera bueltatuz eta 7. grafikoari erreparatuz, % 3,6k euskara soilik, euskara gaztelaniarekin batera % 3,5k eta gaztelania soilik % 86,9k jaso du. Gainera, etxean euskara edo gaztelania ez, baizik eta beste hizkuntza bat jaso dutenak gero eta gehiago dira hiru hiriburuetan: esaterako, % 5,9 Gasteizen.

6. Grafikoa:



Eusk./gazt./eusk. eta gazt./beste bat

7. Grafikoa:



Aurreko ataletan ere aipatu den adinaren faktoreari tarte bat eskainiz, Araban etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekorik handiena gazteenek dute, 25 urte beherakoen artean, % 7,9 baita portzentaia. Izan ere, 25 urte edo gehiagokoen artean berriz, % 3 eta % 4 inguru, hurrenez hurren, dira jasotako ehunekoak. Hortaz aparte, lehen hizkuntzaz aritu garelarik, merezi du aipatzea Araban euskaldun gehienak euskaldun berriak direla, % 75,8, alegia. Haatik, egia da bai, Araban euskaldun zaharren ehunekoa EAeko batez bestekoa baino txikiagoa dela adin-talde guztietan.


1.3. Hizkuntza erabilera

1.3.1. Etxeko hizkuntzaren erabilera

Erabilerara jauzi eginez, lehendabizi, etxe barneko hizkuntza erabilerari arreta eskainiko zaio. EAEn, % 13,8k erabiltzen du euskara etxean, 8. grafikoan ikus daitekeenez. Alabaina, hiru lurraldeen artean oso bestelako emaitzak aurkitu ahalko ditugu. Hain zuzen, Araban % 2,6k erabiltzen du euskara etxean, eta % 5,7k euskara eta

gaztelania. Are gehiago, mapa soziolinguistikoan EAeko udalerriak bost multzotan mailakatuta ageri dira, etxean erabiltzen den euskara-ehunekoaren arabera. Kasu honetan, Gasteiz bosgarren multzoan izango genuke, hau da, etxean euskara soilik jaso dutenen ehunekoa % 7 baino txikiagoa den eta etxean euskara erabiltzen dutenen ehunekoa % 5 baino txikiagoa den multzo horren baitan. Eta beraz, multzo horren baitan ditugu: Bilbo, Bilbo Handiko udalerriak, Arabako Errioxako eta Mendialdeko udalerriak, besteak beste.

8. Grafikoa:




Kasu honetan ere, adinaren aldagaiak eragina izango du. Izan ere, VI. mapa soziolinguistikora jotzen badugu, oro har EAE mailan, 25 urtetik beherako gazteak eta 80 urtetik gorako adinekoak etxean euskara gehien erabiltzen dutenak direla jasoko dugu. Alabaina, euskara erabiltzeari dagokionez, joerak ez datoz guztiz bat EAeko hiru lurraldeetan, hots, aldea Araban dago. Arabako herritarren artean, etxeko erabilerak gora egiten du adinak behera egin ahala eta adineko pertsonak dira etxean euskara gutxien erabiltzen dutenak.

1.3.2. Hizkuntzen erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016.


Arabako euskararen kale-erabileraren bilakaerari dagokionez, orain arte jasotako emaitzarik onenaren parera iritsi da (%4,6), 9. grafikoa ikus daitekeen gisan. Dena den, Euskal herria bere osotasunean hartuta, Araba da erabilera-mailarik baxuena duen lurraldea. Edonola ere, 2011-2016 urteen bitartean, Gasteizen jazo da kale-erabileraren igoerarik ohargarriena, 0,6ko igoera izanik ere.

9. Grafikoa:



Gainera, joera orokorra dugu hurrengoa: zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago erabiltzen da euskara. Horren isla dugu Araba, eta oro har Euskal Herria. Hortaz, Arabako testuinguruan kokatuz, 10. grafikoari begiratzen badiogu, adin-taldeak gehien hitz egiten denetik gutxien hitz egiten denera hurrenkeratuz: haurrak egongo dira lehen tokian (% 7,5), gero gazteak (% 5,2), horren ostean, helduak (% 4,5) eta, azkenik, adinekoak (% 1,3).

10. Grafikoa:



Beraz, bildutako informazioa aintzat harturik, gaitasunari dagokionez, zenbat eta adinean beherago hainbat eta errazagoa izango da euskaraz hitz egiteko gaitasuna duten hiztunekin topo egitea. Gainera, EAEko testuinguruan Arabak du euskaldunen ehunekorik txikiena eta Gasteizek lurraldearen antzeko egoera du. Horrekin batera, lehen hizkuntzari erreparatuz, Arabaren kasuan, gaztelaniaren nagusitasuna beste lurraldeetan baino handiagoa dela ikusi da eta Gasteizen % 3,6 dira etxean euskara soilik jaso dutenak. Eta azkenik, erabilerari dagokionez, Gasteiz etxe barruko testuinguruan euskara erabiltzen dutenen ehunekoa % 5 baino txikiagoa den multzo horren baitan kokatu beharra dago eta kale-erabilerari dagokionean, Araba da erabilera-mailarik baxuena duen lurraldea, baina era beran, Gasteizen jazo da kale-erabileraren igoerarik ohargarriena.

Behin hori argituta, hurrengo atalean, hizkuntza gutxituen biziberritzearen inguruko oinarritzko azalpen teoriko bat emango da honako kontzeptu hauetan arreta jarrita: normalizazioa, hizkuntza gutxituak, arrisku mailak eta hiztun profilak, besteak beste.

2. Hizkuntzen biziberritzea

Hizkuntza gutxituen biziberritzearen inguruko azalpen teorikoari hasiera emateko, biziberritze kontzeptuaren ideia orokor bat eskaintzea komeni da, eta horretarako, hona hemen definizio posible bat:

Término que se ha aplicado a procesos de recuperación de las lenguas amenazadas en situaciones muy disímiles, que presentan distintos grados de vitalidad, desde aquellas que todavía tienen viabilidad hasta las que ya están en franco proceso de extinción (Flores Farfán et al., 2020: 180).

Alabaina, badira horren pare erabiltzen diren beste termino batzuk, hala nola Flores Farfán eta besteren (2020: 36) lanean biltzen diren kontzeptuen artean ditugu *revalorización* Hego Amerikan erabilia eta *rehabilitación* beste zenbait eremutan erabilia, besteak beste.

Era berean, Euskal Herriko testuingurura hurbilketa bat eginez, erabilia izan den beste terminoa normalizazioa dugu. Horrekin batera, Zalbidek (1998: 363) nabarmentzen du termino hori, hau da, *Normalización Lingüística* delakoa, erabili izan dela alde batetik, corpus-plangintza eta bestetik, estatus-plangintza kontzeptuekin lotutako jarduerak adierazteko. Alabaina, argitu ditzagun aipaturiko bi kontzeptu horiek. Corpus-plangintzak hizkuntzaren forma du xede nagusizat, “bereziki hizkuntzaren forma gizartearen bizi moldeari, bere beharrei moldatzeko” (Coyos, 2009: 195). Estatus-plangintzari dagokionez, ordea, “hizkuntza-komunitate batean, hizkuntzaren funtzioak eragiteko martxan jartzen diren ahaleginek plangintza hori osatzen dute” (Coyos, 2009: 195). Hala eta guztiz ere, “existía en el país una primera fuente de referencia, reiteradamente utilizada en torno a 1980: era la definición de normalización lingüística ofrecida por el Libro Blanco del Euskera (Euskaltzaindia / Siadeco, 1977: 646-59)” (Zalbide, 1998: 363).

Behin hori argituta, eman dezagun euskal ikuspegitik begiratuaz Zalbidek (1998: 365) eskainitako normalizazioaren definizioa: hizkuntza normalizazioa euskararentzat hiztunak zein erabilera-eremuak hartzeko eta berreskuratzeko prozesu sozial gisa definitu daiteke; hizkuntza-komunitatearen barne-harremanetan, testuinguru formal zein informaletan, baita ahozko edo idatzizko interakzioetan hizkuntza hori mantendu edo ohiko hizkuntza bihur dadin.

2.1. **Hizkuntza gutxituak eta arriskuan dauden hizkuntzak: arrisku mailak neurtzen**

Aurreko atalean biziberritzeaz aritu garelarik, aintzat hartu beharko da horrek dakarrela hizkuntza gutxitu edo arriskuan dagoen hizkuntza bat dugula esku artean, “The term *language revitalization* has the implication that we are talking about *endangered* languages—where a speech community is shifting toward monolingualism in an encroaching language” (Hinton et al., 2018: 26). Baina zertaz ari gara *endangered language* terminoa aipatzen dugunean? Eta hizkuntza gutxituez ari garenean? Zein ezaugarri ezarri dakizkieke ideia horren pean sailkatzen ditugun hizkuntzei?

Hasteko, asko eta asko dira hizkuntza gutxitu bat definitzerakoan kontuan hartu beharreko parametroak. Manterolak eta Berasategik (2011: 22) horren berri ematen digute nabarmenduaz, alde batetik, irizpide kuantitatiboak aintzat hartzen direla, hala nola, hizkuntza gutxitua dakien biztanleriaren proportzioa edota hizkuntzaren erabilera. Esan nahi da, gutxiengo kontzeptuak dakar konparazio bat egiten ari garela, kopuru-ezberdintasuna neurtzen ari garela bi hizkuntzen artean, behinik behin; esate baterako, hizkuntza gutxitua izendatu dugunak hiztun gutxiago dituela, erabilera portzentaiak apalagoak direla etab. Alabaina, bi autoreek azpimarratzen dute irizpide kualitatiboek ere berebiziko garrantzia dutela, hau da, gizarte antolaketa zein irizpide soziopolitikoekin loturik dauden aldagaiei arreta eskaini behar zaiela; alegia, estatusari, botereari, bazterketari, balioari etab. Eta horrenbestez, kopurua ez da izango aldagairik garrantzitsuena, baizik eta gutxiengo horren parte izateak berekin dakartzan eta aurreko lerroetan aipatu diren ezaugarriak.

Ildo horretatik jarraituz, eta arestian aipaturiko *endangered language* direlakoei erreferentzia egiteko asmoz, Hinton eta besteren (2018: 21) arabera, munduko hizkuntzen artean galtzeko arriskuan daudenak asko dira eta horrek dakar, hizkuntza horren hiztunak diren ehuneko handi batek jada ez duela erabiltzen, belaunaldi gazteenen artean ere ez dela ikasi.

Eta horrenbestez, ondoriozta genezake antzeko kontzeptuak direla aipatu diren biak. Izan ere, batak bestea baitakar sarri. Honekin esan nahi da, hizkuntza gutxituak maila arras bestelakoetan, baina arrisku eskala baten baitan koka daitezkeela, bai une honetan arriskuan daudelako bai etorkizunera begira arriskuan egon daitezkeelako etab. Beraz, European arriskuan dauden hizkuntzen harira, Manterolak eta Berasategik (2011: 28) bilduriko Wurmen (2001) sailkapen boskoitza aipatuko da:

Wurmen (2001) arabera, Europan bost multzo bereiz litezke: lehenengo multzoan arriskuan egon litezkeen hizkuntzak daude [...] Bigarren multzoan arriskuan dauden hizkuntzak zerrendatzen ditu [...] Hirugarren multzoan arrisku larrian dauden hizkuntzak biltzen ditu [...] Laugarren multzoan hiltzorian dauden hizkuntzak jasotzen dira [...] Bostgarren multzoan hilda dauden hizkuntzak bildu dira.

Wurmen (2001) sailkapena aipatu delarik, biziberritzearen parte den tresna bat ekarri nahiko nuke, hots, eskalak. Hain zuzen, zenbait eskala iradoki ohi dira hizkuntzen desagertzeko arrisku maila neurtzeko. Hizkuntzen biziberritzea hizpide dugunez, ezin pentsa daiteke modu homogeenan. Alegia, munduan zehar aurki ditzakegun eta arriskuan dauden hizkuntzen artean maila edota egoera desberdinak aurkitu ahalko ditugu. Hortaz, eskalak baliatzea lagundu dezake:

El uso de las escalas ayuda a proponer diferentes acciones a favor de las lenguas [...] que permiten dimensionar e incidir directamente en que una lengua no deje de ser utilizada. Asimismo, a partir de tales caracterizaciones se pueden identificar ámbitos propicios para la revitalización (Flores Farfán et al., 2020: 49)

Horren ildotik, Moseleyk (2010: 9) nabarmendutakoarekin bat etorritik, argitu nahi da hizkuntzalarien artean ez dagoela erabateko adostasunik arrisku-egoeraren definizioan ezta kontuan hartu beharreko mehatxu-mailan ere.

2.2. Biziberritzearen helburuak

Behin hori argituta, egin dezagun jauzi biziberritzearen helburuetara. Horretarako, lehendabizi, hizkuntzaren biziberritzearen baitan helburuekin loturik egon den uste zabaldu bat aipatuko da. Hizkuntzaren biziberritzea, bada, hiztun berriak sortzeko, hizkuntza erabiltzeko eremu berriak eraikitzeko eta etorkizuneko hiztun belaunaldi bat sortzeko helburuarekin aurkeztu izan da sarri (Grenoble, 2021: 9). Hala ere, azalpena hornitze aldera, bildu dezagun beste autore batzuek esanikoa:

La revitalización lingüística, desde una perspectiva colaborativa, tiene como objetivo generar procesos y actividades que permitan recuperar o crear espacios de uso comunicativo para la lengua que se encuentra en situación de desplazamiento (Flores Farfán et al., 2020: 36).

Flores Farfán eta bestek (2020) azpimarraturikoak, aldagai garrantzitsu bat dakar erdigunera. Hain zuzen ere, gakoa dugu *perspectiva colaborativa* kontzeptua. Kontzeptu horrek pentsatzera garamatza hizkuntza gutxitu baten biziberritzea norbanakoen erabakia izateaz gain edo horren alde jarduteak onura pertsonalaz harago, familiaren, harreman sare zabalagoen edota komunitatearen onura ere izan dezakeela jomuga. Hau da, izaera kolektiboa izan dezakeen prozesua dela. Gainera, nabarmendu dezagun Flores

Farfánek eta bestek (2020) soilik ez, beste zenbait adituk ere elkarrekintza edota taldean lan egiteari berebiziko garrantzia esleitzen diotela:

The decision to revitalize is often a personal one; it requires time, commitment, and tenacity. But at the same time many people may decide to revitalize to benefit not only themselves, but their family, or their larger community or network of friends and acquaintances (Grenoble, 2021: 9).

Horrekin batera, aipatu beharrean gaude ikuspegi kolaboratibo horren baitan aurki genitzakeen parte-hartzaileak nor izan daitezkeen. Beraz, alde batetik, ikuspegi orokor batetik begiratuaz, hiztun komunitatearen parte diren hiztunek izango duten rol garrantzitsua nabarmentzekoa da: “We have already stated that language revitalization is and must be an effort of the speech community” (Hinton et al., 2018: 24). Hau da, hizkuntza baten biziberritze prozesua hiztun komunitatearen aldetik eginiko ahalegin eta esfortzu bat izan beharko da, besteak beste.

Haatik, Flores Farfán eta besterekin (2020: 37) bat eginez, eta ikuspegi hertsiago bat emateko asmoz, esango da hizkuntzaren biziberritzea sustatzeko egiten diren proiektu edota egitasmoen baitan, aktibistak, akademikoak, funtzionarioak etab., hau da, komunikazio sistema hori eguneroko interakzioan bizirik jarrai dezan nahi dutenak aurkituko ditugula. Julia Sallabank and Jeanette King (2021: 33) ere horren alde agertzen dira: “An endangered language community consists not only of people who speak the language; it includes others who have an interest in what is to be revitalised, and whose views need to be taken into account”. Esan nahi da, desagertzeko arriskuan dagoen hizkuntza-komunitate bat ez dago hizkuntza horren hiztun ez osatua soilik; oro har, hizkuntzaren biziberritze prozesuaz kezkatzen direnen iritziak ere kontuan hartu beharko dira.

Horren haritik, aipatu nahi da hizpide izan den ikuspegi kolaboratiboaz gain, egon badaudela hizkuntzaren biziberritzearen barnean beste mota batzuetako ikusmoldeak, museistikoak eta mistifikatzaileak direnak. Hori horrela izanik ere, aurretik aipaturiko ideia, zeina bestelako ikusmoldeekin loturik dagoen argitzea aldera:

La visión colaborativa de la revitalización, cuyo interés es trabajar para y con los hablantes y nuevos hablantes de las lenguas, se aleja de las perspectivas museística y mistificadora justo porque éstas tienen como objetivo la descripción del sistema lingüístico cerrado, siendo la situación de desplazamiento lingüístico y el uso de la lengua dentro de un grupo social un tema de poco interés en sus investigaciones. (Flores Farfán et al., 2020: 40)

Horrez gain, helburu horiek lortzeko bidean, hainbat eta hainbat ikuspegirekin egingo dugu topo. Eta beraz, aberasgarria izan daitekeelakoan, jarrai dezagun

hizkuntzen biziberritzearen egitasmoetan topo egin dezakegun ikuspegi ekologikoaren berri emanaz. Hain zuzen ere, “es una metáfora que invita a pensar los sistemas comunicativos dentro de su ambiente social” (Flores Farfán et al., 2020: 58). Hizkuntzaren erabilera, bada, ekintza sozial bat da, eta biziberritzeak -bere izaeragatik beragatik- gizartea eraldatzea dakar (Grenoble: 2021: 11). Horrez gain, jakina denez, ez dago egoera komunikatibo bat eraikitzerik testuingururik gabe. Horrekin lotuta, beraz, Flores Farfán eta besteren (2020: 59) hitzak bildu nahi izan dira argigarriak zein aurretiaz esandakoaren osagarri izan daitezkeelakoan:

La ecología lingüística reconoce y analiza los contextos en los que la lengua es utilizada, su situación y las condiciones psicosociales de sus hablantes. Enfatiza el hecho de que no hay producción lingüística sin contexto, y no hay texto sin contexto.

Horren haritik, aldagai soziopolitikoak zein sozioekonomikoak jarri izan dira auzi honen erdigunean, bi hauek gakoa izan daitezkeelakoan. Alegia, horiek kontsideratu baitira hizkuntza bat bazterterakoan garrantzi handienetakoa duten bi eragileak. Hain zuzen ere, edozein hizkuntza igorpen egoera soziokultural zein soziopolitiko baten baitan kokatzen den hiztun batek sortua izango da (Flores Farfán et al., 2020: 60). Hala eta guztiz ere, aipatu direnez gain, egon badaude faktore gehiago, zeinak ikuspegi ekologikoari hurbilketa osoago eta errealistago bat bideratzeko aukera ematen dioten. Eta horrenbestez, ekar dezagun Flores Farfán eta bestek (2020: 62) nabarmendurikoa, zeinak ezinhobeto laburbiltzen duen aipatu nahi den ideia:

Por lo tanto, el enfoque ecológico siempre pondrá en perspectiva la lengua en relación con sus variedades, moldeadas a partir de variables de todo tipo: contextuales, políticas, socioculturales e incluso individuales, lo cual tiene que ver con situaciones específicas dentro de los proyectos de vida de las comunidades hablantes.

2.3. Motibazioak eta hiztun profilak

Guzti horrek izan ditzakeen eraginak aintzat harturik ere, jo dezagun beste kontu batera. Horretarako, biziberritzearen baitan aurki ditzakegun motibazioei zein hiztun komunitatearen parte diren hiztunei helduko zaie. Horretarako, Grenoblerekin (2021: 10) bat egingo da, motibazioen sailkapena 6 taldetan bideratuz; estimulu sozial, psikologiko zein fisikoak aintzat harturik: (1) Arbasoekiko, iraganarekiko eta kultura-ondarearekiko lotura; (2) sendatzea; (3) komunitatea eraikitzea; (4) ezagutza eta kultura; (5) ongizatea; eta (6) onura kognitiboak.

Sailkapena sei taldetan bereizi izanagatik ere, kontuan hartu beharko da, euren artean loturak egon badaudela eta beraz, ezin daitezkeela arrazoi guztiz beregaintzat jo, maiz elkarren osagarriak izango baitira. Alabaina, azal ditzagun banan-banan labur bada ere, goian aipaturiko motibazioak.

Lehenik, iraganarekiko loturari dagokionez, Grenoblek azaltzen du motibazio honen atzean aurki daitekeena dela arbasoen hizkuntza hitz egiteak dakarrela arbasoekiko zein kultura-ondarearekiko lotura bat ezartzea eta ahaide zaharragoekin hizkuntza horretan komunikatu ahal izatea, bi alderdientzat biziki atsegingarria delarik. Bigarrenik, sendatzea aipatu denez, hizkuntza kolonial (nazional) baten nahitaezko inposizioaren eta kultura maioritarioaren asimilazioaren ondorioz, pertsona askok autoestimua eta harrotasuna galtzen dute. Beraz, sendatzeak berekin dakar traumatikoa izan zen prozesu hori gainditzea. Hirugarrenik, komunitateari erreparatu beharko diogu, bada, pertsona asko hizkuntza jakin bat ikasten hasten direnean, konturatzen dira ikastearen onurak hizkuntza gaitasunetatik harago doazela, hau da, maiz biziberritze ekintzak berak jendea batzen duela, lotura komunitario estuagoak sortuz. Laugarren motibazioaren baitan ulertu behar da hizkuntza eta kultura estuki lotuta daudela, eta mota askotako ezagutzak hizkuntzan zein praktika kulturaletan biltzen direla. Era berean, ongizateari dagokionez, jakina da hizkuntzak eragina duela ongizate fisiko zein mentalean. Areago, hizkuntzaren biziberritzean aktiboki parte hartzen duten hiztunek autoestimua areagotzea onartu izan dute hizkuntza ikastearekin batera, baita hitz solte batzuk soilik ikasi badituzte ere. Azkenik, onura kognitiboei helduz, gurasoak maiz beldur izaten dira hizkuntza gutxituan hazteak eta hezteak ez ote duen oztopatuko haurraren hizkuntza hegemonikoaren jabekuntza, baina ikerketek kontrakoa erakusten dute. Murgiltze-programetan hezitako haur elebidunek hezkuntza-programa elebkarretako haurrak gainditzen dituzte proba estandarizatuetan.

Alabaina, tartean anitz motibazio dagoen arren, badago zeresana identitateari ematen zaion garrantziaz, “One of the core motivations for revitalization is to claim, or reclaim, identity. This is a consideration that drives many revitalization efforts” (Grenoble, 2021: 11). Eta horrenbestez, motibazioak oso bestelakoak eta aski ugariak izan daitezkeen arren, identitatearen aldarrikapena izango da etengabe eta profil anitzengan errepikatuko den argudioa. Izan ere, hori da aurrerago, hots, aurrekarien atalean (§4) ikusiko duguna, eta hortaz, gerora gehiago sakonduko da ideia edota joera honetan.

Behin hori azalduta, jo dezagun aurrerago egingo den ikerketa baterako abiapuntuan berebiziko garrantzia izango duen gai batera; heterogeneoa den komunitate linguistikoaren hiztunen rola. Gauzak horrela, hiztunen profil edota hiztunen tipologiari erreparatuz, nabarmentzekoa da hiztun tipologiaren ideiarenean atzean hizkuntzen bizitasun mailak eta hiztunen profil indibidualak kontuan hartzen direla (Flores Farfán et al., 2020: 86). Aipatutakoari estuki lotua dagoen hizkuntza ezagutzari dagokionean, izendapen ugari baliatu izan dira horren araberrako sailkapenetan, baina oro har, kutsu negatiboa esleitu izan zaie. Esate baterako, horren adibide garbiak ditugu Flores Farfán eta bestek (2020: 86) bildutako batzuk: *semihablante*, *pseudohablante*, *hablante pasivo*... Eta prozesu horrek jarraituko luke itxuraz “hiztun osoa” izatea lortu arte. Hala ere, ezagutzari edota gaitasunari soilik ez, erabilerari ere erreparatuko zaio profilak deskribatzeko zein zehazteko.

Ildo horretatik jarraiki, hiztun berriak dira hizkuntza gutxitudun komunitateetan topa daitekeen guraso profil bat. Baina zeri deritzogu hiztun berri? Hori argitzeko O’Rourke et al. (2015: 1) lanaren araberrako definizioarekin bat egingo da:

The *new speaker* label is used here to describe individuals with little or no home or community exposure to a minority language but who instead acquire it through immersion or bilingual educational programs, revitalization projects or as adult language learners.

Beraz, hiztun berriak aipatzen direnean, bat egingo da aurretik emandako deskribapenarekin, hau da, etxean edo komunitatean hizkuntza gutxitu batekiko esposizio gutxi edo bat ere ez izan duten, baina murgiltze ereduaren edota bestelako bitartekoen bidez, hizkuntza ikasi dutenak.

Gainera, tradizionalki, hizkuntza gutxituak dauden testuinguruetan, hiztun zahar eta hiztun berri arteko banaketa ez da hizkuntza ikasteko ibilbideagatik soilik bereizi. Izan ere, profil sozialen araberrako banaketa bat ere bazen, hau da, hiztun zaharrak landa-eremuko nekazariak izan ohi ziren bitartean, hiztun berriak klase ertaineko hiri-biztanleak izan ohi ziren (O’Rourke et al., 2015: 12). Hori horrela izanagatik ere, guraso hiztun eta aldi berean hiztun berri diren horiek berebiziko garrantzia izango dute hizkuntza gutxituak dauden testuingurutan. Hain zuzen, azken hamarkadan Europako hizkuntza gutxituen biziberritzea aurki daitekeen inguruneetan hiztun berriek dituzten profilei buruz egindako ikerketek erakusten dute hiztun berriak gai direla hizkuntza horien indar demografikoa eta estatus soziala handitzeko (Nandi et al., 2022: 306). Are gehiago, “neurri handi batean hiztun berriei esker, hizkuntza gutxitua familiatik kanpo

ikasi dutenei esker, gertatu da hiztun-kopuru handitze nabarmena eta, hortaz, hizkuntza horietako normalizazioari begira talde hau estrategikoa da” (Amorrortu et al., 2017: 12).

Hala ere, euskararen kasuan gaitasuna ez, baizik eta erabilera dugu erronka nagusia, testuingurua kokatzearekin batera aipatu den legez. Eta horretan, Amorrortuk eta bestek (2017: 13) nabarmendu bezala, berebiziko garrantzia izango du “hiztun berri horiek erabiltzaile aktibo bihurtuko direla bermatzea”. Izan ere, aldaketa horien berri emateko, “normalean eguneroko bizitzan bizi ditugun aldaketekin bat etortzen dira, lekuz aldatzearekin, jarduera berriak egiteari ekitearekin edota harreman berriak egitearekin” (Amorrortu et al., 2017: 15).

Alabaina, arestian aipaturiko arrazoiak soilik ez, beste arrazoi batzuk ere egon badaude aldaketa prozesu horretan zuzenean eragiten dutenak. Esaterako, euskararen egoeraz arduratzen direnen artean arrazoi ideologikoak argudio sendo bat izango dira euskara modu aktiboan erabiltzen hasteko (Amorrortu et al., 2017: 15). Ildo beretik jarraiki, galizieran zein beste hizkuntza gutxitu batzuetan, hiztun berrien artean rol aktibista hartu ohi duen hiztun profila identifikatu da. Aipaturiko profil horrek erantzukizun-zentzu sendoa erakusten du hizkuntzaren etorkizuneko biziraupena ziurtatzeko, bai eta injustizia sozial eta politikotzat hartzen duenarekin konpromiso argia ere (O’Rourke et al., 2015: 14). Hori horrela izanagatik ere, aurrekarien atalean (§4) eskainiko zaio tarte luzeago eta sakonago bat gurasoen hizkuntza ideologia, praktika zein kudeaketei.

3. Hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko etena eta jarraipena ikertzeko bi ikuspegi: Familiako Hizkuntza Politikak eta Sozializazioa

Hizkuntzen biziberritze prozesua esparru askotan jokatzen den arren, familiaren esparrua zein haurrak sozializatzen diren testuinguruak gakotzat jo izan dira. Horren berri ematen du Cirizak (2018: 1) bere lanean nabarmenduaz, euskararen kasuan, biziberritzean murgiltze ereduak arrakasta erlatiboa izan duen arren, familiaren parte-hartzea eta komunitatearen beste talde-sozializazio praktika batzuk funtsezkoak direla oraindik euskal hiztunen belaunaldi berriak suspertzeko. Hori dela eta, jarraian, familiaren garrantzia hizkuntza gutxituen biziberritze prozesuen baitan, Familiako Hizkuntza Politikak eta Hizkuntza Sozializazioa azalduko dira.

3.1. Familiaren garrantzia erdigunean

Atal honi hasiera emateko, belaunaldiz belaunaldiko transmisioak hizkuntzen biziberritzean daukan garrantzia teorizatu duten bi autoreen ekarpenak aipatuko dira, hain zuzen ere, Txepetxenak eta Fishmanenak. Batetik, Txepetxen ekarpen garrantzitsuenetako bat, *Un futuro para nuestro pasado* (1987) liburuan agertzen dena, hizkuntza baten zazpi funtzio nagusiak gauzatzen diren oinarritzko espazioak irudikatzea izan zen. Hau da, “hizkuntzak betetzen duen funtzioaz mintzatzen da, hau da, hizkuntza baten normalizazioa gerta dadin eskuratu beharreko maila desberdinez” (Manterola & Berasategi, 2011: 58). Areago, funtzioak diagrama baten bitartez irudikatu zituen: identitate-funtzioa, familia-funtzioa, funtzio laborala, funtzio lokala, funtzio nazionala, funtzio kulturala eta zibilizazio funtzioa. Familia-funtzioa oso garrantzitsua da Txepetxen ikuspegitik, izan ere, hizkuntza gutxitu bat familian transmititzeak eta erabiltzeak aukera ematen du hizkuntza hori ama-hizkuntza modura gara dezaten haurrek. Honek, aldi berean, bide eman dezake hizkuntza horrek gainerako funtzioak bete ditzan (Manterola eta Berasategi, 2011: 58). Izan ere, familia esparruan bakarrik hitz egiten diren hizkuntzek nekez eusten diote familiatik kanpo, hau da, eskolan, lan munduan edota administrazio esparruetan hitz egiten diren hizkuntza hegemonikoen presioari.

Fishmanen kasuan ere, familiaren esparruari garrantzia esleitzen zaio. Hain zuzen ere, “Fishmanen hizkuntza indarberritzeari buruzko teoriak oinarri bat du: hizkuntza bati eustearen zutabe nagusia belaunaldi arteko transmisioa da” (Zarraga eta beste, 2010: 269). Gainera, aurreko atal batean (§2.1) aipatu den legez, garrantzitsua da hizkuntza baten biziberritzearen baitan modurik edukitzea egoera neurtzeko, hau da, eskalak aipatu ditugu eta kasu honetan, Fishmanek ere *Belaunaldi Arteko Etenaren Neurria* delakoa eskaintzen digu, zeina 8 mailatan banatzen den.

Zarraga eta besteren (2010) lanari jarraiki aipatu eta azalduko dira Fishmanek proposaturiko zortzi mailak, banan-banan. 8. mailaren kasuan, ez dago hiztun komunitaterik; izan ere, geratzen diren hiztunak zaharrak dira eta ez dute gainerako hiztunekin erlaziorik. 7. mailan, hiztun sare bat dagoen arren, hiztunak zaharrak dira eta ez diete hizkuntza gutxitua euren ondorengoei transmititu. 6. mailan hizkuntza gutxitua komunitateko esparru informaletan erabiltzen da, familian ere bai; ez, ordea, esparru jasoetan. 5. mailari dagokionez, alfabetatzea da maila honetan gakoa. Hain zuzen, alfabetatzeak ekarriko du hizkuntza hegemonikotik pairatzen duen menpekotasunetik,

hein batean bederen, askatzea. 4. mailan lehen mailako derrigorrezko hezkuntza hizkuntza gutxituan gauzatzea aurkituko dugu. 3. mailan hizkuntza gutxitua lan esparruan erabiltzea aipatzen da. 2. mailan hizkuntza administrazio publikoan zein tokian tokiko komunikabideetan baliatuko da. 1. maila maila gorena dugu; hizkuntza goi-mailako hezkuntzan, lan-munduan, komunikabideetan eta administrazio publikoan erabiltzea, alegia.

Beraz, behin maila guztien azalpen labur bat emanda, azpimarratu nahi da Fishmanek hurrengo defendatzen duela, Zarraga eta besteren (2010: 269) lanaren arabera: “Hizkuntza bat ez bada gurasoengandik seme-alabengana transmititzen ez du etorkizunik eta hori oso kontuan izan behar da hizkuntza indarberritzeko ahaleginak egiterakoan”. Eta horrekin, agerian geratzen da Fishmanek familia esparruari esleitzen dion garrantzia.

Aurreko lerroetan aipaturikoaren ildotik, argitu nahi da familian eragitea aski ohikoa izan dela; alegia, ez dela soilik azken hamarkadetako kontu bat. Izan ere, azken hamarkadetan indartu dena familia ikerketa esparru gisa izan da. Hain zuzen ere, euskararen kasuan, topa daitezke familian hizkuntzaren belaunaldiz belaunaldiko jarraipena sustatzeko kanpaina ugari (Hernandez, 2015: 51). Halako kanpainen baitan, hainbat eta hainbat egitasmo antolatzen dira familian eragiteko. Hortaz, horrek dakar, “familiararen eragile profila zehazten dela, ordura arte eskolak izandako protagonismoari elementu/agente berri bat gehituz” (Hernandez, 2015: 51). Beraz, hurrengo lerroetan bi ikuspegi teoriko aurkeztuko dira, hots, Familiako Hizkuntza Politika eta Hizkuntza sozializazioa.

3.2. Familiako Hizkuntza Politika

Zerk esleitzen dio hainbesteko garrantzia familiarren esparruari? Zergatik familia eragile? Familia gune edo esparruari garrantzia esleitzen zaio bertan finkatzen delako haurren hizkuntz sozializazioa zein, oro har, euren hizkuntz ingurumenaren kudeaketa ere (Hernandez, 2015: 57). Eta horrekin, beraz, beste testuinguru batzuetan aplikatzen ari den eta eraginkorra suertatzen ari den termino bat aipatu beharrean gaude, hau da, Familiako Hizkuntza Politika.

Hurrengo lerroetan helburu nagusia ¹FHPen berri ematea eta horretan sakontzea izango bada ere, ezer baino lehen komeni da, oro har, hizkuntza politiken inguruan

¹ Hemendik aurrera FHP laburdurarekin aipatuko da Familiako Hizkuntza Politikak.

zenbait kontu argitzea. Izan ere, Spolskyk (2009: 1) argudiatu bezala, zeina Nandiren (2018: 1) lanean irakurri den, “is all about choices”, hau da, hizkuntza politiken muinean gizarte batean hizkuntzen presentziari lotutako hautuak leudeke. Gainera, azpimarratu beharra dago, goitik beherako hizkuntza politikak egon badaudela, hots, agintariek herritarrei zuzendutakoak, eta goitik beherako politika horiek izan dute nabarmenki nagusitasuna hizkuntza politikaren esparruan. Hau da, goitik beherako politikak estatu bakoitzaren hizkuntza-beharretan eta komunitate zein gizarte-talde bakoitzaren hizkuntza-eskakizunetan jartzen du arreta; esparru horretan, hizkuntzak eguneroko bizitzan mantentzeko edo biziberritzeko estrategiak garatzen ditu (Reyna Muniain et al., 2019: 110). Hala ere, hizkuntza politikak ez dira gobernu zein erakundetan hartzen diren erabakietara mugatzen eta bestelako hizkuntza politikek ere berebiziko garrantzia dute:

In addition to top-down policies, the family’s language decisions towards minority languages and cultures, for instance, are vital as they offer important insights into the dynamics of identity formation and language maintenance in threatened language communities (Nandi et al., argitaratzeaz: 2)

Horren ondorioz, hizkuntza politiken kontzeptua familien testuingurura ekarriko da, FHPn sakonduz. Eta horri ekiteko, Nandiren (2018: 5) lanean biltzen den King eta besteren (2008) ideia bat ekarri nahiko nuke, hots, gurasoen etxeko hizkuntza-politikak detektatzea zaila izan daitekeela, batzuetan sotilak eta informalak direlako eta ez esplizituak eta argi adieraziak.

Horretarako, komeni da argitzea hizkuntza politikak hiru osagai nagusi barne hartzen dituela: a) hizkuntza-praktikak: hiztunek egiten dituzten hizkuntza erabilerak sartzen dira hizkuntza-praktiken azterketaren baitan; b) hizkuntza-sinesmenak edo ideologia: hizkuntzari eta haren erabilerari buruzko uste eta ideologiekin lotutakoa; c) Hizkuntza kudeaketa: hizkuntza-kudeaketaren bidez praktika horretan eragiteko edo aldatzeko berariazko edozein ahalegin sartuko da (Spolsky, 2004: 5). Hori horrela izanik ere, egia da bai, familiaren baitan bereizketa hori zenbaitetan ez dela hain erraza izaten. Curdt-Christiansenek (2014: 38) argudiatuikoarekin bat eginez (Nandin (2018: 6) irakurria), familia barnean edota etxeko testuinguruan hizkuntza kudeaketa eta praktikaren arteko muga lausoa da; gurasoen euren hizkuntza praktikak edo erabilerak haurren hizkuntza hautuetan eragiteko estrategiak izan daitezkeelako. Alabaina, Nandik (2018: 6) nabarmendutakoarekin bat etorritik, familia baten hizkuntza-kudeaketa oso baldintzatuta dago etxeko hizkuntza-ingurunearekin, familiako kideek elebitasun

sozialari buruz duten ezagutzarekin eta familiaren baldintza sozio-ekonomikoekin, besteak beste.

Hala ere, familia barnean gauzatzen diren hizkuntza praktiken harira, hurrengo galderak ekarriko dira erdigunera: Zein hizkuntza nagusitzen da? Familiako zein kiderekin? Noiz? Zergatik? Praktiken bitartez ere, hizkuntza hautuen atzean egon daitezkeen arrazoieta sakonduz, konturatuko gara ideologiak azaleratuko direla Nandiren (2018) lanak erakusten duen bezala. Hain zuzen ere, hizkuntza gutxituekiko jarrera pro-aktiboa duten gurasoen artean nagusitzen den pentsamoldea da, Nandiren galizieraren kasuari buruzko (2018: 16) lanean ikusi ahal izan den legez: “Pro-Galician parents also show awareness of this cultural as well as ideological dominance of Castilian and are involved in a bottom-up discourse that melds their individual efforts with broader collective mobilisations”.

Beraz, esandakoaren ikuspegi orokor bat eskaintze aldera, Nandiren eta O'Rourken (2019: 497) lanaren bitartez, berri izan den Curdt-Christiansen and Lanzaren (2018) aipu bat bildu nahi da: “any analysis that seeks to investigate language policy elements in the home, needs to take into consideration parental beliefs, attitudes, latent ideologies and choices made about language use and the reasons behind those choices”. Horrenbestez, aurrerago egingo den ikerketa proposamenean gurasoen ideologia, praktikak eta kudeaketa baita horien guztien atzean dauden arrazoiak kontuan hartuko dira.

3.3. Hizkuntza Sozializazioa

Jada aipatu denez, beste hurbilketa teoriko bat ere egon badago hizkuntzen belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ikertzeko, hots, Hizkuntza Sozializazioa. Beraz, horretarako garrantzitsua izango da sozializazioaren kontzeptuaren definizio bat ematea, behinik behin:

Sozializazioa —handi-handika harturik— haurrari edo heldu hasiberriari komunitate jakin baten gizarte-bizitzan eraginkortasunez eta egoki parte hartzeko beharrezkoak diren ezagutzak, joerak eta jarduerak eskuratzea ahalbidetzen dion prozesua da (Kasares, 2017: 29).

Are gehiago, Kasaresek (2017: 30) zehazten duen moduan, “hizkuntza-sozializazioa prozesu dinamikoa, elkarreragilea, bizitza osoan dirauena eta inguruneari lotua da”. Haatik, Hizkuntza Sozializazioan sakontze aldera, hona hemen beste definizio posible bat: “Language socialization arose out of an anthropological conviction that

language is a fundamental medium in children's development of social and cultural knowledge and sensibilities" (Ochs & Schieffelin, 2011: 1). Esan nahi da, hizkuntza bitarteko garrantzitsutzat jotzen dela haurren ezagutza zein sentsibilitate sozial eta kulturala garatzeko. Are gehiago, jaiotzetik egoera sozialetan murgildurik dauden gizakiak, eduki soziokulturalaz gainezka dauden seinale linguistikoetara egokituko dira, zeinak testuinguruaren aniztasunarekiko sentikorrek bihurtzea ahalbidetzen duen (Ochs & Schieffelin, 2011: 8)

Behin hori argituta, sozializazio prozesuaren abiapuntuari erreparatu nahi zaio, hau da, "hizkuntza-sozializazioa haurren gizarte-harremanak hasten diren unean abiatzen da —hizketan hasi baino lehenago ere— eta gizon-emakumeen bizitza osoan iraun dezake" (Kasaresek, 2017: 30). Beraz, bizitza osoan zehar garatu daitekeen prozesu etengabea dugu hizkuntza-sozializazioa.

Hortaz aparte, hizkuntza-sozializazioaren prozesuan sartzen ari direnen edota sartu berri direnen inguruan zenbait kontu argitzeko asmoz, Ochs & Schieffelin-i (2011: 6) jarraiki, hizkuntzaren sozializazioaren baitan haur zein prozesu horretan hasiberriak direnen posizionatze sozial zein komunikatiboei erreparatzen zaie testuinguru aski bestelakoetan, baita jokabide horien atzean egon daitezkeen arrazoiei ere. Beraz, haurrak soilik ez, hizkuntza bat dena delako adinarekin ikasi duten hiztunak ere prozesu horren baitan kokatu beharko genituzke. Are gehiago, zer lortuko dute prozesu horren bitartez? Hizkuntza-sozializazioaren bitartez, hainbat testuinguru sozial esanguratsu ezagutzen, negoziatzen eta ko-eraikitzen ikasiko dute, gerora, horri esker, beste hiztun batzuekin harremanetan jarriko dira geroz eta testuinguru gehiagotan eta gizarte-horizonteak zabalduko zaizkie, rol eta estatus berriak bereganatuz joango direlarik (Garrett & Baquedano-López, 2002: 342).

Hala ere, biziki kritikatu izan da maiz sozializazioari esleitu zaion noranzko unidirekzionala. Hain zuzen ere, uste aski zabaldua izan delako helduek haurrak sozializatzen dituztela edota prozesu horren baitan haiek direla eragile aktiboak, eta ez, ordea, kontrara. Horrenbestez, horrek dakar haurrak jasotzaile pasibo hutsak kontsideratzea. Aitzitik, Kasaresek (2017: 37) defendatzen duenez, "haurrak subjektu aktiboak izan dira hala euskara galtzeko nola berreskuratzeko prozesuetan [...] hau da, etxeko hizkuntza aldarazi dutenak ez dira beti gurasoak izan". Areago:

Hizkuntza-sozializazioaren izaera elkarreragileak *transfer* edo *transmission* ideia, hau da ohiko kontzeptu horien baitan dagoen goitik beherako eta norabide bakarreko prozesua izatearen adiera gainditzen du. Haur txikiak ez dira balizko transmisio

baten jasotzaile pasibo hutsak. Umeek ere beren familiako kide helduak sozializatzeko ahalmena dute (Kasares, 2017: 30)

Hortaz aparte, Hizkuntza Sozializazioaren baitan aintzat hartzen diren parametro edota eragileak aurkeztu baino lehen, ulertu beharko da hizkuntza-sozializazioaren prozesuan hasiberriak diren horiek parametro sozial eta kulturalen oinarriak ulertuko dituztela euren parte-hartzearen zein gainerakoen parte-hartzearen bidez; egoera horiek sozialki egituratuta baitaude (Ochs & Schieffelin, 2011: 7). Are gehiago, haurrak jo puntutzat harturik, Kasaresek (2017: 31) ere nabarmendu nahi izan zuen haurrak hizkuntzen arauz jabetuko direla hizkuntza hori edota hizkuntza horiek gizarte-jardueretan nola erabiltzen diren ikusita zein horretan parte hartuz.

Behin hori argituta, sozializazioaren prozesuaren baitan erabakigarriak diren faktore edota eragileei buruz jardun beharko ginateke. Egiazki, “eraginguneei doakielarik, etxeaz eta eskolaz gain hizkuntza-sozializazioak haurraren bizitza ukitzen duten gizartearen arlo guztiak (etxeko aisialdia, eskolaz kanpoko jarduerak, hedabideak...) biltzen ditu” (Kasares, 2017: 44). Hala ere, argitu dezagun Kasaresekin (2017: 44) bat eginez:

Etxeko elkarrekintzak, eskolakoak eta plazakoak ez dira hizkuntza-jarduera guztiz bereziak; aitzitik, haurtzaroko hizkuntza gizarteratzeko prozesu zabalagoan txertatuta dauden, elkarreraginean dabiltzan eta elkar elikatzen duten jarduera sozializatzaileak dira.

Hau da, maiz modu beregainean aztertu badira ere, bada loturarik aipaturiko elkarrekintzen artean. Hortaz, behin eragingune nagusiak aipatuta, jo dezagun eragiletara. Gurasoak sozializazioaren eragile ezinutzizkotzat jo izan dira sarri, eta batez ere, euren hizkuntza gaitasunari erreparatu izan zaio. Hartara, gurasoek sozializazioaren prozesuaren baitan duten garrantzia ukazina bada ere:

Haurrak euskaraz haztea gurasoen hizkuntza-gaitasun nahiz gogo-nahien mailan ez ezik, inguruneko egoera soziolinguistikoan, harreman-sareetan, mintzairaren estatusen eta gizarte-oharmena bezalako alderdi mikro eta makrosoziologikoen mailetan ere kokatu beharra dago (Kasares, 2017: 33).

Hain zuzen ere, haurren hizkuntza sozializazioan eragile ugari daude, esate baterako, euren adinkideak biziki garrantzitsuak izango dira “haurrek beren mintza-jardunean elkarri eragiten diotelako” (Kasares, 2017: 36). Hala ere, ezin ukatuzko ideia dugu hurrengoa: “Umeak euskaldun hazi nahi dituzten aita-amek haurrak euskaraz ari daitezen ekintza sozializatzaile berariazkoa egiten dute eta, horretarako, etxean hizkuntza-portaera finkoak ezarri ohi dituzte” (Kasares, 2017: 35).

Horrekin batera, eta kontu honekin bukatzeko, azpimarratu beharra dago hizkuntza-sozializazioari buruzko ikerketaren ekarpen esanguratsuenetako bat eguneroko bizitzari buruz eman duen ikuspegia dela:

The focus of language socialization research on socializing routines—recurrent, situated activities that provide structured opportunities for children to engage with caregivers and other community members—has been highly productive (Garrett & Baquedano-López, 2002: 343).

Gainera, komunitate jakin baten baitan bi hizkuntza edo gehiago daudenean, kode horiek harremanetan jarri dituzten zirkunstantzia soziohistorikoak edozein direla ere, gutxitan izaten da egoera neutroa edo arazorik gabea, Garrett & Baquedano-Lópezen (2002: 350) arabera. Areago, gizabanako eleaniztunek, bada, haur txikiak barne, kode eta praktika komunikatiboen arabera eratuta zein errotuta dauden kategoria sozialak birnegoziatzeko, desafiatzeko edo gainditzeko egoeran egon daitezke (Garrett & Baquedano-López, 2002: 350).

4. Hizkuntza gutxituen transmisiorako eta sozializatorako Familiako Hizkuntza Politika: aurrekari batzuk

Behin oinarrizko kontzeptuak eta ideiak azalduta, hurrengo helburu nagusia hizkuntza biziberritze prozesuetan familia guneak daukan garrantzian sakontzea izango da, familia barneko hizkuntza ideologia, praktika eta estrategiei erreparatuz. Izan ere, gogora ekar dezagun aurreko atal batean (ikus § 3.2.) Spolsky-ren (2004) sailkapenean oinarritu gara hizkuntza praktikak, hizkuntza ideologia eta hizkuntza kudeaketa bereiziz. Hala ere, esan beharra dago, hizkuntza erabilerari bai familiako esparruan baita bestelako sozializazio esparruetan ere erreparatuko zaiola. Horrez gain, haurren agentziari ere tarte bat eskainiko zaio. Eta horrenbestez, belaunaldiz belaunaldiko hizkuntza jarraipena familian nola gertatzen den erakusten duten lanak baliatuko dira. Hau da, aipaturiko osagaiak aztertu dituzten lan batzuen berrikusketa egingo da.

Esparru honetako ikerketetan kontuan hartzen den elementu bat da parte-hartzaileen hizkuntza-gaitasuna. Izan ere, guraso euskaldunak, guraso erdaldunak eta bikote mistoak izan ohi dira sailkapenerako baliatzen talde nagusiak. Haatik, hurrengo atalean (ikus § 5) garatuko den ikerketa baterako abiapuntuan guraso euskal hiztunak izango dira erdigunean kokatu eta parte-hartzaile gisa proposatuko direnak. Hortaz, aurrekarien atal honetan, nagusiki, guraso euskal hiztunen ideologia, praktika eta

estrategiei banan-banan erreparatuko zaie. Alabaina, bestelako profilak ere kontuan hartuko dira, osagarri gisa.

4.1. Gurasoen ideologiak

Hasteko, emaitzei erreparatzen hasi baino lehen, hizkuntza ideologiaren kontzeptua argitzea izango da lehenengo helburua. Izan ere, hizkuntza-ideologiak hizkuntza baten balioa eta eguneroko testuinguruetan nola erabili behar den zehazten duten sinesmenak, jarrerak eta arauak barne hartzen ditu; areago, gurasoek beren hizkuntza-praktiken bidez transmititzen dituzte beren ideologiak, eta, beraz, beren seme-alabak ideologia horrekin sozializatzen dituzte (Nandi et al., 2022: 309).

Behin hori argituta, gurasoen ideologiei buruz mintzatzeko, lehenik eta behin, Escandonen (2016) lana ekarriko da. Egiazki, Escandonen (2016) lanean, Gasteizko 0 eta 6 urteko adin tartean, haur horien gurasoen artean euskararen belaunaldiz belaunaldiko transmisioak zein euskaraz sozializatzeak duten garrantziaz jabetzeko egitasmoa garatzen da; are gehiago, gurasoak erdigunean kokaturik eta metodologia kualitatiboari helduz, zenbait eztabaida talde eta sakoneko elkarrizketa biltzen dira Gasteizko tipologia askoko gurasoen artean.

Beraz, lan horren ondorioen artean, ikus daiteke guraso euskal hiztunengan identitateari loturiko motibazioak ugariak direla. Hain zuzen ere, beren seme-alabek euskaraz ikas dezaten motibazioaz galdegitean, euren erantzunen artean identitateari zuzenean loturiko motibazio kulturala gailentzen da. Halaber, motibazio instrumentala ez da aipatzen guraso euskal hiztunen talde honen baitan. Aldiz, guraso erdaldunen artean, Amorrortu eta Ortegaren (2009) lanaren bidez, zeinetan bereziki guraso erdaldunen hizkuntza-eredu elebiduna edota euskarazko murgiltze-eredua hautatzearen atzean dauden arrazoiak aztertzen diren, antzeman da guraso profil horrek bai, maiz seme-alabek euskara ikas dezaten nahi duela, tresna balioa eransten diolako, hau da, etorkizunera begira euskaraz jakitea garrantzitsua izango delako hartzen dituzte zenbait erabaki.

Hala ere, identitatearen motibazioa euskal hiztunak ez diren gurasoengan ere aurkituko da. Hain zuzen ere, Escandonen (2016) lanean, guraso erdaldunengan topo egin da, seme-alabek euskara ikastearen arrazoiak galdegitean, ugariak izan ohi direla nortasunarekin eta identitatearekin erlazionatutako argudioak. Areago, “inbidia” eta “harrotasuna” moduko kontzeptuak biltzen dira, gurasoen ahotik entzundakoak euren seme-alabei euskaraz hitz egiten entzutearen harira.

Hala eta guztiz ere, guraso erdaldunei gagozkielarik, identitatearekin erlazionatutako argudioez gain, beste hainbat arrazoi egon badaude euren seme-alabek euskara ikas dezaten nahiaren atzean. Esaterako, Ikardoren (2017) azterlanean, Ipar euskal kostaldean familia bidezko transmisioa kolokan denez, gurasoek seme-alabak murgiltze ereduaren eskolatzeko hautuaren atzean dauden arrazoiak azaleratuko dira. Eta arrazoi horien artean, etenaren ideiarekin loturiko argudioekin egin da topo. Esan nahi da, guraso erdaldun batzuk belaunaldiz belaunaldiko euskararen etenaren lekuko izan dira euren familian bertan eta horrek frustrazio sentimendua eragin dielarik, frustrazio iturri izan den horren aurka euskara berrezartzeko borondatea islatzen da guraso hauengan.

Hortaz aparte, Kasaresek (2014), 1970etik 2012ra bitarteko tartean, Nafarroa Garaiko euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenaren nolakotasunari erreparatzen dio, baita haur nafarrak euskaldun bilakatzen diren egoerei ere. Eta horrenbestez, ikerlan horretan lorturiko emaitzei erreparatuz, konturatuko gara familia euskalduna osatzea berariaz harturiko erabakia dela, horren atzean motibazio azkar zein ideologikoa dugularik; alegia, gurasoen «kontzientzia» kontua. Horrekin batera, Cirizaren (2018) azterlana, *Karmelo Ikastolako* programan murgiltzen da eta euren seme-alabak *Karmelo Ikastolan* eskolatu dituzten guraso euskaldunengan jasotako informazioari so eginez, topo egingo dugu guraso euskaldunek adierazten dutela eskolaren bultzada ideologikoaren eragina nabarmena dela, eta horrek eragina duela etxeko hizkuntza erabileran, baita seme-alabak euskaraz sozializatzeko motibazioan ere. Esan nahi da, guraso euskal hiztunek onartzen dute hain dagoela inplikazio handia, bai ideologikoa, bai pertsonala, bai soziala, eskolaren aldetik, zein etxean gauza bera egin eta sustatu behar dutela pentsatzen eta sentitzen duten.

Nolanahi ere den, azpimarragarria suertatzen da Garcia-Ruizen (2019) ikerketan azaltzen den emaitza bat. Izan ere, Garcia-Ruizen (2019) lanean, EAEko testuinguru erdaldun bateko familien hizkuntza politikak aztertzen dira, elementu ideologiko zein estrategietan arreta berezia jarritz. Eta ikerlan honetan topo egingo dugun kontu esanguratsua da guraso euskal hiztunek aitortzen dutela haurren sozializazio prozesuan, gero eta goiztiarrago handitzen dela gaztelaniaren presentzia.

4.2. Hizkuntza praktikak

Atal hau hizkuntza praktikei eskainiko zaie eta horretarako, familiako zein bestelako sozializazio esparruetan erreparatuko zaie praktikei. Nandi et al. (2022: 309)

lanari jarriki, neurri handi batean, espero diren hizkuntza-portaerak zehazten dituzte praktikek, eta hizkuntza hainbat eremutan eta hainbat helburutarako erabiltzea ezartzen dute. Alabaina, etxeko eremuan, eguneroko hizkuntza-erabilera, funtsean, ez dator bat ideologia eta sinesmen linguistikoekin; izan ere, gurasoek benetan egiten dutena erakusten dute, beren ustez hizkuntza bat mantentzeko egin behar denaren orde (Nandi et al., 2022: 309). Hala ere, tentuz ibili beharko gara; egiazki, Curdt-Christiansenek (2014:38) dioen bezala, zeina Nandi et al. (2022) lanaren bitartez berri izan den, zaila da hizkuntzaren kudeaketa eta etxeko praktikak bereiztea; izan ere, gurasoek kontrolatu eta esku hartu ohi dute beren seme-alaben jokabide diskurtsiboan.

Beraz, ekar ditzagun gurera guraso euskal hiztunak. Talde honen baitan, etxeko testuinguruan nagusituko den hizkuntza euskara izango da, bai gurasoen artean baita seme-alabekin dituzten interakzioetan ere. Izan ere, hori da Escandonen (2016) zein Kasaresen (2014) lanek erakusten dutena. Alabaina, egia da bai, hainbat eta hainbat gurasorentzat beren seme-alaben eskolaldia atzerapen bat izan dela euskararen gaitasun zein erabilerari dagokienez; eskolatik bueltatzean gaztelaniaz barra-barra aritzen baitira sarri. Eta aipaturiko azken kontu horrek etsipen sentimendua sorrarazi izan du euskal hiztunak diren gurasoen artean. Aitzitik, guraso erdaldunen kasuan, agerian da ez dakitela euskaraz hitz egiten, baina Escandonen (2016) lanean, guraso batzuek ahal duten neurrian dakiten apur hori erabiltzeko ahalegina egiten dutela azpimarratzen da. Hala ere, begi-bistan dago etxeko testuinguruan nagusituko den hizkuntza ez dela euskara izango, erdara baizik, kasu hauetan, gaztelania. Hala ere, bikote mistoen kasuan, Escandonen (2016) eta Kasaresen (2014) arabera, hurrengo joera nagusitzen da: kide euskaldunak seme-alabekin euskaraz jarduteko ohitura badu ere, euskarak ez du toki handirik izaten familiaren bizitzan, hau da, gainerako egoeratan gaztelania nagusitzen da. Areago, Kasaresen (2014) ustez, behin gurasoaren eta hauraren artean eguneroko interakzioetan hizkuntza bat ezarrita, haurarentzat harremanak hizkuntza horretan izan beharko du, horrek baitu berarentzat benetakotasuna. Gainera, familiaren baitan bi seme-alaba badira, euren artean ere gaztelaniara jotzeko joera dute. Horregatik esan da familia horietan, oro har, gaztelaniaren presentzia gailentzen dela.

4.3. Hizkuntza kudeaketa

Behin ideologia zein praktikei buruz hitz egin delarik, jo dezagun gurasoek dituzten estrategietara. Estrategiak erabaki baten isla izan ohi dira, hots, hizkuntza kudeatzeko edo planifikatzeko erabakiak ekintza kontzientetzat har daitezke. Gurasoak

etxeko hizkuntza-planifikatzaileak izaten direnez, familia barruko hizkuntza-kudeaketan sartzen dira gurasoek eginiko hautuak eta hizkuntza bat zaintzeko egiten dituzten ahaleginak (Nandi et al., 2022: 309).

Hasteko, guraso euskaldunak direla eta, Escandonen (2016) lanaren emaitzetan kontu nabarmena da, oro har, modu kontziente batean garrantzia ezartzen diotela transmisioaren gaiari. Horrek dakar D ereduan ikasteari eta euskara haurren H1 izateari garrantzia esleitzea, baina hori horrela izanik ere, Gasteiz bezalako eremu aski erdaldun batean ez dela nahikoa deritzote. Areago, Escandonek (2016) nabarmentzen du Gasteizeko egoera soziolinguistikoaren eraginez, non gaztelania nagusitzen den, euskarazko sare sozialak eratzea eta, oro har, euskara ahalik eta gehien erabiltzea beren erantzukizuntzat jo ohi dutela gurasoek. Hortaz, egoera soziolinguistikoak behartuta zenbait erabaki hartzen dituzte gurasoek, hizkuntzari dagokionez. Gainera, Escandonen (2016) lanean soilik ez, baizik eta beste hainbat lanetan ere gurasoen kudeaketaren berri dugu. Esate baterako, Kasaresen (2014) arabera, seme-alabak jaio aurretik hartu ohi den erabaki bat da euskaraz hitz egingo diotela erabakitzea. Are gehiago, behin seme-alabak jaiota, euskararekiko atxikimendua lantzeko joera arras ohikoa da, euren berariazko erabaki bat izan baitzen umeak euskaldun hazteko eta hezteko estrategia. Izan ere, Kasaresen (2014) ikerketaren bitartez, ikus daiteke estrategia aski erabilia dela haurtzain euskalduna bilatzea edota zerbitzua euskaraz ematen duen haur eskola bat aukeratzea.

Horrekin batera, Cirizaren (2018) lanean ideia interesgarri batekin egin da topo, hots, guraso euskaldunek etxean euskaraz bakarrik hitz egiteko familia-hizkuntza politika sendo bati atxikitzen zitzaizkiola onartzea. Era berean, Cirizaren (2018) lanaren bidez bikote mistoen estrategia interesgarri batzuen berri jaso da, hala nola anai-arreben artean euskararen erabilera sustatzea, familiarik kanpo sozializazio-ekitaldiak bilatzea eta oporrak herri euskaldun batean igarotzea. Hala eta guztiz ere, bereziki testuinguru erdaldunetan, Garcia-Ruizen (2019) lanean irakurri den legez, arrunta izan ohi da guraso euskal hiztunen artean frustrazioarekin diskurtsoarekin topo egitea izan badituztelako euskararen erabilera sustatzeko estrategiak, baina maiz ez dira nahikoa haiek bilatzen duten FHP aurrera eramateko.

Horrez aparte, Nandi et al. (2022) lanean topo egin da familia indibidualen hizkuntza-kudeaketak forma kolektiboagoa har dezakeela. Hau da, haien kudeaketak eta banakako hizkuntza-praktikak, mobilizazio kolektiboetan suspertzen direnean, eragina izan dezaketela gizartearen hizkuntza-portaeran; horrela, hainbat guraso aktibistek eremu jakin bat guztiontzako euskarazko sozializazio-testuinguru bihurtuz.

Galiziako testuingurura jauzi eginez, Nandiren (2018) bitartez, zenbait estrategia antzeman ditzakegu. Esate baterako, galizieraz dakiten, baina hiztun berriak diren horien artean ikusi da, gaztelania nagusitzen dela sarri, baina hala ere, ahalegin bereziak egiten dituztela, hala nola egunero seme-alabekin galizieraz ordubetez hitz egiten saiatzea; galizieraren aldeko hainbat alfabetatze-praktika baliatzea, galegoa lotarako abesti eta ipuinen bidez sartuz. Oro har, Nandiren (2018) lanean agerian geratu da galizierarekiko jarrera proaktiboa duten gurasoek etxean hizkuntza gutxituan alfabetatzearen aldeko giroa garatzeko egiten duten hizkuntza-kudeaketa; hala ere, gaztelaniarekiko desoreka telebistan, liburuetan etab. azpimarratzen dute. Halako kasuez gain, Galiziako testuinguruan ikusi da gurasoak galizieraren kapital sinbolikoa areagotzeko saiakerak egiten dituztela. Hain zuzen ere, euren seme-alabak noizbait isolatuta edo lotsatuta sentitu badira galizieraz hitz egiteagatik, hizkuntzaren erabileran harrotasun eta autoidentifikazio sentimendua bultzatu dute gurasoek.

4.4. Haurren agentzia

Aipatu ditugun hiru osagaiez gain, kontuan hartu beharko dugu, aurreko atal batean (ikus § 3.3) aipatu dugun bezala, hizkuntza sozializazioaz ari garelarik, ezin dezakegula noranzko unidirekzional bat irudikatu, hots, gurasoek haurrak soilik ez, haurrek ere gurasoak edota adinkideak sozializatzeko gaitasuna dutela, eragile aktiboak diren aldetik. Esate baterako, adin jakin batera heltzean, seme-alaba nagusiak kontrola har dezake bere hizkuntza praktikan eta horrek aurrera begira eragina izan dezake neba-arreba txikiarengan (Garcia-Ruiz, 2019). Esan nahi da, neba-arreba txikiak gaztelania lehenago zein bere neba-arrebak bere adinarekin zekiena baino gehiago ikas dezake seme-alaba nagusiaren eraginez. Alabaina, ez da soilik neba-arreben arteko eragina nabarmentzen, baizik eta, seme-alabek gurasoengan izan dezaketen eragina ere. Horren berri emateko, hurrengo lerroetan Kasaresek (2014) bildutakoaren berri emango da. Hasteko, kontu agerikoa da etxe askotan euskara haurren bidez sartu dela eta horrek maiz eragin duela euskara ongi ez zekiten gurasoek haurrei esker zeozer ikasteko parada izan dutela. Zertxobait ikasi ahal izan dute bai haurren bitartez, bai seme-alabak ikastolan hastearen eraginez, gurasoak euskara klasetara apuntatzea erabaki dutelako. Areago, seme-alabek gurasoen arteko euskarazko ohitura finkatzen ere lagundu izan dute sarri.

5. Ikerketa baterako abiapuntua

GrAL honen azken atalean, bigarren helburu nagusia, hots, ikerketa baterako abiapuntua gauzatu nahi da. Horretarako, alde batetik, ikerketa galderak eta aurreikuspenak, eta bestetik, ikerketarako parte-hartzaileak zein datu-bilketarako tresnak aurkeztuko dira. Hala ere, proposamen hau etorkizunera begirako Master Amaierako Lan baten lehen urrats edota lehen hurbilketa gisa ulertu behar da. Beraz, beste zenbait ikergai edota aldagai aztertzeke utziko dira, GrAL baten mugetara egokitzeko asmoz. Alabaina, MAL baterako balizko ikerketa lez ulertu behar denez, prozesu horri egokitu ahal zaion kronograma bat ere txertatzea erabaki da, urtebeteko epea aintzat hartuta.

5.1. Ikerketa galderak eta aurreikuspenak

Ikerketa honen helburu nagusia, gaur egungo Gasteizko testuinguruan guraso euskal hiztunak dauden familietan haurrak euskaraz sozializatzeko dituzten hizkuntza polituketara hurbilketa bat egitea izango da. Hau da, euskararen belaunaldiz belaunaldiko jarraipenean sakondu nahi da, fokua Gasteizen jarrita, eta are zehatzago, guraso euskal hiztunez osatutako familietan. Beraz, aipaturiko horretan gehiago sakontze aldera, hizkuntza ideologia, praktika zein estrategiekin loturiko ikerketa galderak formulatuko dira; areago, haurren agentziarekin loturiko ikerketa galderei ere tarte bat eskainiko zaie.

- 1. ikerketa galdera: Zein arrazoirengatik erabakitzen dute gurasoek haurrak euskaraz haztea? Zein da euskarari ematen dioten balioa euren hizkuntza polituketan? Escandonen (2016) ikerketaren emaitzei erreparatuz, guraso euskal hiztunengan identitateari loturiko motibazioak ugariak dira, hala nola motibazio kulturala; alegia, identitateari estuki loturiko motibazioa. Motibazio instrumentala, hau da, euskarari tresna balioa eranstea etorkizunera begira euskaraz jakitea garrantzitsua izango delako, ordea, ez da emaitzen artean agertzen. Horrekin batera, Kasaresen (2014) ikerlanari erreparatuz ere, azpimarratzen da familia euskalduna osatzea berariaz eginiko hautua dela; beraz, horren atzean motibazio azkar zein ideologikoa dugularik; alegia, gurasoen «kontzientzia» kontua. Orduan, espero daiteke aurrera begirako ikerketaren corpusaren emaitzetan ere, identitateari loturiko motibazioa gailentzea.

Hala ere, Ortega eta besterekin (2016: 59) bat eginez, azken urteotan euskararen balio instrumentalak indarra irabazi du, eta hein batean behintzat, euskararen

garapenerako baliagarria izan daitekeen arren, arriskutsua ere izan daiteke. Izan ere, ikerlan horren parte diren hiztun berriek aitortzen dute euskara bigarren hizkuntza bezala ikasteko nagusiki edota soilik motibazio instrumentalak daudela tartean. Are gehiago, identitate edota integrazioarekin loturiko arrazoiez gain, espero daiteke etorkizunera begira, lan munduan etab. aritzeko ezinbestekotzat jotzen dutelako, horregatik beragatik, seme-alabei euskara transmititzea. Horren ondorioz, arrazoi ideologikoei soilik ez, motibazio instrumentalari ere erreparatu beharko zaio; izan ere, aurrera begirako ikerketan motibazio mota horrekin ere topo egitea aurreikus daiteke. Horrez gain, ideologiarekin ez ezik, estrategiekin ere lotuta dagoen galdekizun bat planteatu nahi da. Hori dela eta, ideia horri jarraiki, hurrengo lerroetan 2. ikerketa-galdera formulatuko da.

- 2. ikerketa galdera: Zein estrategia dauzkate Gasteizko guraso euskal hiztunek euren seme-alabak euskaraz sozializatzeko? Zer nolako praktikak dituzte? Horri erantzuteko, gogora ekarri nahi da, Kasaresek (2014) ondorioztatu bezala, familia euskalduna osatzea seme-alabak jaio aurretik berariaz harturiko erabakia izan ohi dela; gurasoen kontzientzia kontua. Eta horrenbestez, ikerketa proposamen honen baitan ere, seme-alabak jaio aurreko zein ideologiarekin konexioa duen erabaki bat izatea aurreikusten da. Era berean, familia horien baitan zer nolako praktikak eta estrategiak dituzte? Escandonen (2016) arabera, Gasteizko guraso euskal hiztunek euren seme-alabak D ereduan ikasteari zein euskara haurren H1 izateari garrantzia esleitzen dioten arren, Gasteizko testuinguru soziolinguistiko erdaldunak eraginda, aisialdia, sare sozialak eratzea eta, batez ere, euskara ahal den guztietan egitea bezalako estrategiak jarraitzen dituzte euskararen erabilera bermatzeko. Hortaz, hipotesia izango da, etorkizunera begirako ikerketa horren baitan ere, gurasoen partetik antzeko estrategiekin topo egitea, euren errealitatearen parte den gaztelaniaren presentziari aurre egiteko asmoz.

Horren ildotik jarraiki, beste hainbat estrategiekin ere topo egitea espero da. Kasaresek (2014) bere lanaren emaitzen baitan aurkeztu zuen haurtzain euskalduna bilatzeko edota zerbitzua euskaraz ematen duen haur eskola bat hautatzeko estrategia. Areago, Iruña bezalako eremu soziolinguistiko batean, zeinetan gaztelaniaren presentzia nagusitzen den, aipaturiko estrategiak baliatzen direla ikusita, antzeko estrategiak eta joerak espero genitzake Gasteizko testuinguruan bizi diren gurasoengan. Hortaz, hipotesi gisa formulatuko da guraso euskal hiztunek euskarazko zerbitzua eskaintzen duen haurtzaina edota haur eskola aukeratzea. Horrekin batera, Nandiren (2018) bitartez

beste estrategia batzuk ere jaso dira, hots, hizkuntza gutxituaren aldeko zenbait alfabetatze praktika, ipuinak, kantak etab. Eta horrenbestez, aurrera begirako ikerketaren hipotesi gisa formulatuko da aipatu diren estrategiak baliatzea, aski ohikoak izan ohi direlako hizkuntza gutxituaren presentzia bermatzeko, sozializatorako tresna gisa.

Gainera, etxean bakarrik ez, estrategiak komunitatera ere zabaltzen direla aipatzen da Nandi eta besteren (2022) lanean. Hortaz, Nandi et al. (2022) lanaren ildotik, hipotesizat joko da hainbat guraso aktibistek haurrak euskaraz sozializatzeko eremu eta testuinguruak sortuko dituztela, adibidez, eskolako testuingurua gurasoak elkartzen direnean, parkeak etab., guztientzako euskarazko sozializazio-testuinguru bihurtuz. Izan ere, galizieran zein beste hizkuntza gutxitu batzuetan, hiztun berriek rol aktibista hartu ohi dute, eta erantzukizun-zentzu sendoa erakusten dute hizkuntzaren etorkizuneko biziraupena ziurtatzeko, bai eta injustizia sozial eta politikotzat hartzen dutenarekin konpromiso argia ere (O'Rourke et al., 2015: 14). Ikerketa galderekin bukatze aldera, haurren agentzian jarri nahi da arreta. Horretarako, jarraian, 3. ikerketa-galdera formulatuko da.

- 3. ikerketa-galdera gisa planteatu nahi da: Haurrek zer nolako agentzia dute? Zenbaterainoko eragina izan dezakete neba-arreba nagusiaren hizkuntza praktikek seme-alaba gazteagoengan? Aurreikuspenak eraikitzeko, lehendabizi, Kasaresen (2014) emaitzak ekarri nahi dira, hau da, seme-alabek maiz gurasoen arteko euskarazko ohitura finkatzen lagundu dutela. Eta horrenbestez, aurreikuspen gisa ekarri nahi da, gurasoak euskal hiztunak izan arren, seme-alabekin bai, baina euren artean ez badute beti euskaraz berba egiten, haurren eragin edota bultzadaren bitartez, seme-alabek gurasoen hizkuntza praktiketan eragin dezaketela, besteak beste. Are gehiago, neba-arreben artean ere aurki daiteke, neba-arreba txikiak gaztelania lehenago zein bere neba-arrebak bere adinarekin zekiena baino gehiago ikastea seme-alaba nagusiaren eraginez (Garcia-Ruiz, 2019)

Beraz, behin ikerketa-galderak formulatuta, hurrengo pausora jauzi egingo da, hau da, ikerketarako metodologian sakontzera. Horrek dakar, parte-hartzaileei, testuinguruari eta ikerketa tresnei buruz, informazioa eskainiko dela hurrengo lerroetan.

5.2. Ikerketarako metodologia

5.2.1. Testuingurua eta parte-hartzaileak

Gogora ekarri nahi da ikerketa proposamena Gasteizko testuinguruan kokatu behar dela. Izan ere, gaitasun, lehen hizkuntza eta erabilera datuak eskaini dira 1. atalean eta jo muga dugun testuinguruko datu horiek gogoan izatea komeni da. Horrekin batera, guraso euskal hiztunak dauden 10 familia izango lirateke parte hartuko luketenak, 5 eskola publikokoak eta beste 5 Ikastolakoak. Euskal hiztun diogunean, esan nahi da, hiztun zahar zein berriak aintzat hartuko direla parte-hartzaile gisa. Egiazki, ez dut helburutzat bereizketarik egitea, lagin zabal heterogeneo bat nahi baita, hau da, ez dira euskara lehen hizkuntza edota bigarren hizkuntza gisa duten gurasoen arteko kontrasteak bilatuko lehendabiziko abiapuntu honetan behintzat. Hala ere, ikerketa gauzatzen denean aldagai garrantzitsu eta erabakigarri bat dela ikusten bada; orduan, bereizketa egitea planteatu liteke. Horrekin batera, familia bakoitzetik bi gurasoak (daudenean behintzat) elkarrizketatuko dira, horrela, ikuspegi osoago bat izateko, Nandik (2018) proposatu eta aurrera eraman zuen bezala. Horrez gain, bi seme-alaba dauden familiak aztertu nahi dira, haurren agentziaren atalean (ikus § 4.4) aipatu den bezala, seme nagusiak seme txikiaren hizkuntza gaitasun eta, batez ere, hizkuntza praktiketan eragin dezakeelako. Areago, lagin heterogeneo bat nahi denez, neskak zein mutilak, hau da, semeak eta alabak daudela ziurtatuko da, generoa aldagaia izan daitekeelako. Hau da, sexua edo generoa klase sozialarekin, adinarekin eta etniarekin batera, gehien erabiltzen den kategoria demografiko sozialetako bat da (Cheshire, 2004). Alabaina, generoa ezin daiteke modu isolatu zein beregainean aztertu, beste aldagai batzuekin interakzioan baizik, horrela lortuko baita sendotasuna. Gainera, seme-alaba horietako bat haur hezkuntzan egongo da (4-5 urte) eta bestea lehen hezkuntzako 5. edo 6. mailan (10-12 urte); izan ere, horren bitartez ziurtatu nahi da seme-alaba nagusiak jada harreman sare ugari dituela, baita eskolatik kanpo ere bere adinkideekin harremana duela, batik bat.

5.2.2. Datu-bilketarako tresnak

Ortegak eta bestek (2016) erabilitako ikerketa tresnak baliatuko dira GrAL honen ikerketa baterako abiapuntuan. Hori dela eta, datu-bilketarako ikerketa kualitatiboaren esparruan baliatzen diren bi tekniken bitartez gauzatuko da: eztabaidataldeak eta elkarrizketa erdi-gidatuak. Areago, Ortega eta besteren (2016: 21)

ikerketarako oinarrizko metodologia eztabaida-taldeek osatzen dute eta elkarrizketa erdi-gidatuek lagungarri moduan jokatzen dute. Beraz, GrAL honetan ere, ikerketarako abiapuntua osatzeko, metodologia horri jarraituko zaio.

Batetik, eztabaida-taldeak baliatuko dira eskaintzen duten potentzialtasuna dela medio. Hain zuzen ere, parte-hartzaileak elkarlanean aritzeko aukera eskaintzen dute, eta horrek datu aberasgarri zein kalitatezkoak biltzea ahalbidetzen du (Ortega et al., 2016: 22). Are gehiago, tresna horren bidez, partaideen arteko iritzi aniztasuna azaleratu eta ideia berriak eraikitzekeo parada eskaintzen du. Horrekin batera, Nandik ere (2018) eztabaida taldeen eraginkortasuna datu-bilketarako tresna gisa defendatzen du gai zehatzagoen inguruan ikuspegi sakonagoa eskaini diezaguketelakoan, hala nola, hizkuntza politiken alternatibak edota politika gaien inguruko oinarrizko pertzepzioak. Areago, Nandiren lanaren bitartez Markova et al. (2007) laneko ideia batekin bat egin nahi da, hots, eztabaida taldeak testuinguru bat eskaini diezaikeela egoera berean dauden parte-hartzaileei, modu dinamikoan iritziak trukatu eta partekatu ditzaten, horrela, kolektibo edota komunitate txiki bat ko-eraiki dezaten.

Bestetik, elkarrizketa erdi-gidatuei dagokienez, horiek erabiliko dira profil zehatz batzuetan sakontzeko asmoz, agian eztabaida-taldeetan ez baitira behar bezala ordezkaturata egon edo beste barik interesgarriak izan daitezkeelako eta lehen analisisan garrantzitsutzat jotako auzi jakin batzuetan sakontzeko (Ortega et al., 2016: 23).

5.3. Kronograma

ZEREGINAK	HIRUHILEKOAK			
	1	2	3	4
Ikerketaren atal teorikoaren lanketa: literaturaren berrikusketa ikerketaren alderdi kontzeptuala osatzeko. Zirriborroa idatzi.				
Helburuak zehaztu eta ikerketa galdera nagusiak formulatu.				

Datu-bilketa diseinatu eta EHUko Etika Batzordearen baimena lortu.				
Datu-bilketa, transkribaketa eta kodeketa.				
Analisia egin eta idatzi.				
Ondorioak idatzi eta lan guztia berrikusi.				

5.4. Ikerketa proposamenaren balizko ekarpenak

Euskal Herrian, euskararen transmisioaren esparruan, Hernandezek (2015) dioen moduan, gehiago egin da hizkuntza politikak proposatu, familiako hizkuntza politikak ikertu baino. Hori dela eta, modu xumean bada ere, MAL baten bidez azken urteetan egin diren ikerketei segida eman nahi zaie. Horrez gain, Inkesta edota Mapa Soziolinguistikoak transmisioaren esparruan izan den bilakaeraren datu makro-soziolinguistikoak ematen dituzte. Aldiz, transmisioaren hainbat dimentsio ikertzeko, bestelako ikuspegi batzuk jorratu izan dira Euskal Herrian, eta etorkizuneko MALa hor kokatuko litzateke: Familiako Hizkuntza Politikaren eta Hizkuntza Sozializazioaren ikerketa esparruetan. Horrekin batera, fokutzat jo den testuinguruari dagokionez, hau da, Gasteizko testuingurua, Aritza Escandonen lana da erreferentzia argia, baina 0-6 urte bitarteko haurren gurasoekin egin zen ikerketa. Aldiz, aurrera begirako MALean bi seme-alaba dauden familiak, bata Haur Hezkuntzan eta bestea Lehen Hezkuntzan, kontuan hartuko lirateke.

Bibliografia

Amorrortu, E. & Ortega, A. (2009): “Zergatik eskolaratzen dituzte gurasoek seme-alabak euskarazko hizkuntza-ereduetan?”, *Euskera*, 54, 579-602.

Amorrortu, E.; Ortega, A. & Goirigolzarri, J. (2017): “Euskararen hiztun aktibo bihurtzeko gakoak”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 104, 11-49.

Cheshire, J. (2004): “Sex and Gender in Variationist Research”, in J.K. Chambers; P. Trudgill & N. Schilling-Estes (ed.), *The Handbook of Language Variation and Change*, Blackwell Publishing, 423-443.

Ciriza, M. (2018): “Bringing parents together an innovative approach for parental involvement in an immersion school in the Basque Autonomous Community”, *Journal of multilingual and multicultural development*, 40, 50-63.

Coyos, J.B. (2009): “Errealitate soziolinguistikoaren deskribapena eta irudikatzea-hiru aldagairekiko modeloak”, *Anuario del Seminario de Filología Vasca Julio de Urquijo*, 43, 193-204. Eskuragarri: <<https://addi.ehu.es/handle/10810/49483>> [2022/05/18].

Escandon, A. (2016): “Vitoria-Gasteizko gurasoekin euskararen transmisioaz eginiko ikerketa kualitatiboaren ondorio txostena”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 98, 128-144.

Eusko Jaurlaritz; Nafarroako Gobernua & Euskararen Erakunde Publikoa (2016): VI. *Inkesta Soziolinguistikoa Euskararen eremu osoa*. Eskuragarri: <https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9954/VI_INK_SOZLGEH_eus.pdf?1499236557> [2022/05/18].

Flores Farfán, J.A.; Córdova Hernández, L. eta Cru, J. (2020): *Güía de revitalización lingüística: para una gestión formada e informada*, Mexico: Linguapax.

Garcia-Ruiz, M. (2019): “Euskararen erabilera sustatzeko ideologia eta estrategiak D ereduko gurasoen hizkuntza politika eleaniztunetan”, in O. Arbelaitz; U. Etxeberria; A. Latatu & M. J. Omaetxebarria (ed.), *III. Ikergazte. Nazioarteko ikerketa euskaraz. Kongresuko artikulu bilduma. Giza Zientziak eta Arteak*, Bilbo: UEU, 107-114.

Garrett, P. B. & Baquedano-Lopez, P. (2002): “Language socialization: Reproduction and Continuity, Transformation and Change”, *Annual Review of Anthropology*, 31, 339-361. Eskuragarri: <<https://www-annualreviews-org.ehu.idm.oclc.org/doi/pdf/10.1146/annurev.anthro.31.040402.085352>> [2022/05/18].

Grenoble, A. (2021): “Why revitalize?”, in J. Olko & J. Sallabank (ed.), *Revitalizing Endangered Languages: a practical guide*, Cambridge University Press, 9-23.

Goikoetxea, G. (2016): *Euskara irabazteko bidean*, Donostia: Elkar.

Hernandez, J.M. (2015): “Familia hizkuntza-politika: transmisioa ulertzeko eredu berri baten bila”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 94, 47-62.

Hinton, L.; Huss, L. eta Roche, G. (2018): “Language Revitalization as a Growing Field of Study and Practice”, in L. Hinton; L. Huss & G. Roche (ed.), *The Routledge Handbook of Language Revitalization*, New York: Routledge, 21-30.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza (2020): *VI. Mapa Soziolinguistikoa 2016*, Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Ikardo, U. (2017): “Ikastoletako guraso erdaldunak eta euskararen jarraipena lapurdiko kostaldean”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 105, 11-45.

Kasares, P. (2014): *Euskaldun hazi Nafarroan: euskararen belaunez belauneko jarraipena eta hizkuntza sozializazioa familia euskaldunetan*, Bilbo: Euskaltzaindia.

Kasares, P. (2017): “Euskararen transmisioa: berrikuspina hizkuntza-sozializazioaren paradigmatic”, in J. Goirigolzarri; X. Landabidea & I. Manterola, I. (ed.), *Euskararen biziberritzea*, Bilbo: UEU.

Manterola, I. & Berastegi, N. (2011): *Hizkuntza gutxituen erronkak*, Bilbo: UEU.

Moseley, C. (2010): *Atlas de las Lenguas del Mundo en Peligro*, UNESCO.

Nandi, A. (2018): “Parents as stakeholders: Language management in urban Galician homes”, *Multilingua: Journal of Cross-Cultural and Interlanguage Communication*, 37(2), 201-223. Eskuragarri: <<https://web-p-ebsohost-com.ehu.idm.oclc.org/ehost/pdfviewer/pdfviewer?vid=2&sid=52b5651b-fb20-413e-9c15-0b00d3cda10c%40redis>> [2022/05/18].

Nandi, A. & O'Rourke, B. (2019): “New speaker parents as grassroots policy makers in contemporary Galicia: ideologies, management and practices”, *Language Policy*, 18, 493-511.

Nandi, A.; Manterola, I.; Reyna-Muniain, F. & Kasares, P. (2022): “Effective Family Language Policies and Intergenerational Transmission of Minority Languages: Parental Language Governance in Indigenous and Diasporic Contexts”, in M. Hornsby and W. McLeod (ed.), *Transmitting Minority Languages: Complementary Reversing Language Shift Strategies*, Switzerland: Palgrave MacMillan, 305-329.

Nandi, A., Garcia-Ruiz, M. & Manterola, I. (argitaratzeak): “Reclaiming voice through family language policies: Parental Sociolinguistic citizenship in Castilian-Spanish dominated multilingual settings”, in C. Korb, J. Gspandl, A. Heiling & E. J. Erling (ed.), *Reclaiming voice: Transforming power relations between languages*, Bristol: Multilingual Matters.

Ochs, E. & Schieffelin, B.B. (2011): “The Theory of Language Socialization”, in A. Duranti; E. Ochs & B.B. Schieffelin (ed.), *The Handbook of Language Socialization*, Blackwell Publishing, 1-11.

O’Rourke, B.; Pujolar, J. & Ramallo, F. (2015): “New speakers of minority languages: the challenging opportunity – Foreword”. *International Journal of the Sociology of Language*, 231, 1-20. Eskuragarri: <<https://www.degruyter.com/document/doi/10.1515/ijsl-2014-0029/html>> [2022/05/12]

Ortega, A.; Amorrortu, E.; Goirigolzarri, J. eta Urla, J. (2016): *Euskal hiztun berriak: esperientziak, jarrerak eta identitateak*, Bilbo: Deustoko Unibertsitatea.

Reyna Muniain, F., Manterola, I. & Nandi, A. (2019): “Educación plurilingüe con lenguas minoritarias en contextos de diáspora y su impacto en las políticas lingüísticas en familias neohablantes: el caso del gallego en Argentina”, *Lengua y Migración*, 11-2, 107-134.

Sallabank, J. & King, J. (2021): “What do we revitalise?”, in J. Olko & J. Sallabank (ed.), *Revitalizing Endangered Languages: a practical guide*, Cambridge University Press, 33-45.

Soziolinguistika Klusterra (2017): *Hizkuntzen-erabileraren kale-neurketa. Euskal Herria, 2016*. Eskuragarri: <https://soziolinguistika.eus/files/hekn2016-eu_1.pdf> [2022/05/18].

Spolsky, B. (2004): *Language Policy*, Cambridge: Cambridge University Press.

Zalbide, M. (1998): “Normalización lingüística y escolaridad: un informe desde la sala de máquinas”, *RIEV*, 43, 355-424.

Zarraga, A.; Coyos, J.P.; Hernandez, J.M.; Joly, L.; Larrea, I.; Martinez, L.V.; Uranga, B. & Bilbao, P. (2010): *Soziolinguistika Eskuliburua*, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritz.